



REBEKA ARRARAS

**«Emakumezkook
egiten ditugun
enpresak
txikiagoak
dira, baina
egonkorragoak»**

- **Ekonomia solidarioa** Lana eskuratzea zail dutenentzat aukera
- **Nafarroa Oinez** Irakurketa kritikoa lantzeko egitasmoa Tafallako Garcés de los Fayos ikastolan
- **Eduardo Vírgala**, EHUko zuzenbide katedraduna «Epaitegietan demostratuta dagoenak betirako balioko balu, Sortuk ezingo luke inoiz legala izan»
- **Estankona** Lehen diskoa bakarkako ibilbidean
- **Net Hurbil** Rosat izena du Lurrera eror litekeen hurrengo sateliteak

argia orain zure eskuko telefonoan ikusgai

Eskuko telefonoarekin eta QR kodeari esker, momentuan bistaratuko dituzu ARGIAko edukiak Interneten

Gustuko duzun artikulu hori lagun bati bidali nahi diozula?
Ezinegona sortu dizun erreportajeari buruz iritzia eman nahi duzula?
Elkarrizketa interesgarri horren bideoa ikusi nahi duzula?
Iragarki batean ikusi duzun produktua eskuratu nahi duzula?

Orain QR kodeak lagunduko dizu. Hona argibideak:



> Non lortu QR kode irakurlea?

Eskuko telefono bakoitzak bere irakurgailu berezia behar du. Hartu sakelekoa eta jaitsi ezazu zeurea! Irakurle ezberdin asko daude. Hemen ARGIAren gomendioak:

- iPhone-erako: Redlaser (www.redlaser.com)
- Blackberry-rako: Beetagg (www.beetagg.com)
- Android-erako: Barcode Scanner (www.market.android.com)

- 1 ARGIA astekariko artikulu bakoitzaren bukaeran QR kode bat aurkituko duzu.
- 2 Eskuko telefonoan jaitsi berri duzun kode irakurlera sartu eta argazki makina baten moduan, QR kodearen aurrean jar ezazu honek edukia irakurri arte. Adi, garrantzitsua da kodea enfokatuia erakustea.
- 3 Prest zaude zure mugikorrean ARGIAz gozatzeko!



Ausar zaitez QR kode hau irakurtzera eta argia.com berritua ezagutuko duzu!





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko urriaren 9a, 2.293. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Anjel Lertxundi:** «Perfekzioa faxista omen duk». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **REAS.** Pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia. UXUA LARRETXE / 5

Pertsonaia

- **Rebeca Arraras:** «Emakumeok mundua nola egingen genukeen pentsatzeko garaia da». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Nafarroa Oinez.** Ulermena oinarri. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Mundua baino ez. UXUE APAOLAZA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Apatiaz.** AINHOA LARRAÑAGA / 22
- **Txandan** Pasatu dira. IGOR ESTANKONA / 22
- **Hondarribiko eta Alardeko naziak.** JOSEBE ITURRIOZ / 23
- **Hiruko txikian** Donostiako. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Musuari jarriak. JULIO SOTO / 24

Erdiko kaiera

- **Musika.** Estankona: gardentasunaren magia. GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** UNAI BREA / 33
- **Ihesi Usurbil (Gipuzkoa).** Eskulturak eta muralak historiaren kontalari. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Ezker abertzalearen legeztatzea.** Bide guztiek daramate Konstituzio Auzitegira. URKO APAOLAZA / 39
- **Finantza iruzur piramidalak.** Nola atzeman iruzurrak eta tranpa-inbertsioak. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Urepeleko ahotsak etxe xokotik.** AITOR ZABALETA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Zeruan zero zabor, txatar koxkor batek mailatu ez zaitzan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Izan ere, Spain is different.** IÑAKI MENDIGUREN / 50



“Perfekzioa faxista omen duk”

Anjel Lertxundi | Poeta

Aise eman zidan erantzuna.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hogeita hamaikagarrenean aidanez, Espainia-ko Literatura Sari Nazionala.

Asmatu duk, asko gustatzen zaidak musa, eta hogeita hamaika eskutik omen nian epaimahaiaren esanetan. Eta ni konturatu ez, nire keinu bat gaizki interpretatu zuten arte!

Piztiaren izena aitatu ez ote dudan...

Bai, bete-betea asmatu duk. Batzuentzat, Espainia duk piztiaren izena. Beste batzuentzat, literatura. Sariak ere piztia beltzak dituk askorentzat. Nazionalari dago-kionez, piztiak asko gozatzen dik nazioen arteko sestrekin.

Badakizu, zorion perfektua ezin lortu gurean.

Perfekzioa faxista omen duk, Nietzschek esana. Utopia bat noiz bilakatzen den faxismo? Zoriona lortzeko aitzakian, bere zorion ereduarekin ados ez daudenak garbitzen has-ten denean.

Alegia, etxeko hautsak behar direla harrotu, erratzu, daudenean egon?

Ezagutu eta tratatu, hautsak, etxekoak izana-gatik ere, alergia-iturri izaten baitituz.

Lasai, lurak berdinduko gaitu guztiak.

Iraultza Frantsesaren *Egalité* ekarri didak gogora. Lur azpian, guk denok *égalité* osoa; gutaz gozatuko duten harrek, *fraternité* hala moduzkoa; eta *liberté* berriz, zendu baten bake betirako hori.

Bitartean, ordea, konpainia noblean egotea onena.

Bai, ondo esan duk: bitartean. Eta konpai-nian. Ahal bada, noblean.

Eta, badaezpada, bete eta bete lehorreko koaderno.

Marinelek lehorrari ematen dioten zentzuan, noski. Jakingo duk lehorra gaztelaniaz *tierra firme* dela. Eta niretzat idaztea duk mundual-diak eman didan lehorra, lur irmoena.

Leialtasun baten historia bizi duzu, beraz.

Ez zaidak ezer sakralizatzea gustatzen. Ezta literatura ere. Baina leiala natzaiok. Zenbat, nire emazteari galdetu beharko diok.

Hainbeste urteren buruan, ajea du Lertxundik?

Urteei eta nekeari eransten bazaio gerra eman segitzeko gogoa, eta horri inork ajea dei-tzen badio, bere eskubidea dik.

Mentura dugun artean, hortaz...

Arteak borroka irabazi nahi ziok denborari. Eta artea, euskaraz, baduk denbora ere. Sisifo totala, aizak.

Joan aurretik: zer itxura du egun munduaren neurriak?

Nola nahi duk neurtzea, kana erditan edo metrotan, eurotan edo dolarretan, ipuin bat idatziz edo poesia pixka batekin? ■



• ASTERO GAIA •

REAS

Pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia

Benetako aldaketa soziala bultzatu nahian, ekonomia solidarioa eta alternatiboa oinarri duten enpresa eta erakunde anitz biltzen ditu REAS sareak, lanpostu bat eskuratzeko zailtasun gehien duen jendeari lana emanez.

UXUA LARRETXE

Oraintxe mezularitza enpresak droga-menpekotasunen bat izandakoak eta langabezian luze egondakoak hartzen ditu langile.



ORAINTE

GERO ETA AHOTS GEHIAGOK ezbaian jartzen du egungo eredu kapitalista eta hark ekarri duen sistema ekonomiko, finantzario eta sozial bidegabea. Aldaketarako aldarrikapena aspalditik egin dute zenbait mugimenduk, tartean REASek, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak. “Ekonomiak norbanakoen eta kolektiboen garapenaren zerbitzura egon behar du eta bitartekoa izan behar du, ez helburua”, azaldu digu Carlos Askunzek, REAS Euskadiko koordinatzaileak. Ekonomia solidarioaren definizio horretan oinarritzen dituzte beraien jarduerak (finantziarioa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa), eta definizio horrexek batzen ditu REASeko kide guztiak. “Ekonomia kapitalistak jarduera ekonomikoa helburu egin du, nagusiki irabazien masifikazioari begira, eta guk ekonomia-aren benetako kontzeptua berreskuratu nahi dugu: pertsonen garapenerako bitartekoa dena. Beraz, pertsonak lehenetsi behar direla aldarrikatzen dugu eta ez irabaziak”.

Gaur egun, REAS Euskadin eta REAS Nafarroan 70 enpresa eta gizarte erakunde daude, horien artean denera 1.670 lanpostu zuzen sortzen dituzte, 86 milioitik gorako irabaziekin, eta 4.300 boluntario inguru aritzen dira bertako elkarte edo erakunderen batean lanean. REAS Euskadi 1997. urtean sortu bazen ere, azken urteetan izan du gorakada handiena; “zenbaitetan enpresak jo du zuzenean guregana, interesa zuelako, eta beste batzuetan, gu geu izan gara esperientzia ekonomiko ezberdinetara jo dugunak, ikusi dugulako gure filosofia bera zutela”. Izan ere, ekonomia alternatiboa oinarri duten inguruko ahalik eta esperientzia gehien batzea dute xede. Hala, REASen barruan dauden erakundeek era guztietako jarduerak lantzen dituzte: ostalaritza, arkitektura eta irigarritasuna, garbiketa eta mantentze-lanak, animazio sozio-kulturala, txikizkako merkataritza, teknologia berriak, gizarte eta lan bitartekaritza, eraikuntzarako gremioak, mezularitza ekologikoa...



DANI BLANCO

“Krisiak lagundu du jendea sistemarekiko kritikoago egiten, ekimen eta itxaropen handiagoa edukitzen, eta ekonomia beste modu batera egin daitekeela sinestarazten”

CARLOS ASKUNZE, REAS EUSKADI

Oraintxe, mezularitza lasterra eta ekologikoa

Mezularitza lasterrean aritzen den Bilboko Oraintxe enpresak 1998an ireki zituen ateak, lan merkatuan parte hartzeko zailtasun gehien zutenei laguntzeko asmoz. “Garapen jasagarriaren alde lan egiten dugu, eta orain Bilbo osoan mezularitza lanak egiteko, esaterako, bizikleta elektrikoa darabilgu. Motorra eta furgoneta, berriz, inguruetan (Getxo, Barakaldo, Zamudio, Galdakao...) aritzeko”, azaldu digu Berbisne Aizpurua bertako langileak. Bilbon ez ezik, Iruñean ere ordezkari du Oraintxek.

Nolanahi ere, REAS mugimenduaren hazia zaborraren bilketan, berrerabilpenean eta birziklapenean lanean ziharduten erakunde gutxi batzuek eta ekonomia solidariodun enpresak

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

sustatzen ari ziren erakundeek erein zuten. Hain justu, bigarren horiek enpresa konbentzionalaren funtzionatzeko modua baztertu eta lanpostu bat eskuratzeko zailtasun gehien zuen jendearengana jo zuten langile bila. Egun, REAS eta Gizatea (EAEko Integrazio Enpresen Erakundea) elkarlanean aritzen dira eta sortzen dituzten lanpostu gehienak nagusiki emakumeei begirakoak dira. “REAS Euskadiren baitan ditugun enpresetako langileen %60 inguru emakumeak dira, eta lan munduko integratziora espresuki bideraturikoetan, gainera, zenbateko hori hazi egiten da”, dio Askunzek. Emakumeekin batera, azken urteetan atzeritarrak ugaritu dira enpresotan, baita oinarritzko errentaren hartzaile direnak, mendekotasunen bat izan dutenak edota prozesu penalen batetik datozenak. Oraintxeren kasuan, esaterako, has-tapenetatik droga-mendekotasunen bat izan eta errehabilitazioan zeudenak eta langabezia denbora luzez egondakoak aritu izan dira. “Sektore gatazkatsuekin lan egiten baduzu ezin duzu gizarteratze edo laneratze enpresa oso teknikoa sortu, jendea ez dagoelako horretarako prestatuta”, azaldu digu Aizpuruak. Hori dela-eta sortu zuten Oraintxe, “mezularitzan jarduteko nahikoa delako bizikletaz ibiltzeko fisiko pixka bat izan eta Bilboko kaleak ondo ezagutzea”. Dena den, gizarteratzera bideratu-



riko enpresek izaera iragankorra dute, eta hortaz, pertsona horiek sei hilabete eta hiru urte bitartean baino ezin dira egon. Denbora tarte horretan gaitasun pertsonal eta profesionalak eskuratuko dituztela aurreikusten da, eta horrek ondoren ohiko merkatuan lanpostu duin bat eskuratzen lagunduko diela.

Bernardo Atxaga & Jabier Muguruza 'Paradisuz'



IRUÑEA | Planetarium

Urriak 14, ostirala | 20:00

Sarrerak: 10 € (Karrikiri denda)

EUSKARA
Kultur Elkargoa

argia

aniza
komunikazio grafikoa

KARRIKIRI
Irudi-komunikazioa

euskalerriairratia
irratia

Noticias

UDALBILTZA
UDALBIDE

ITZOL
EUSKAL
PIZKUNDEA

planetario
de pamplona



Fiare banku etikoak aurreztaileen dirua gorde eta interes apaleko maileguak ematen dizkie gizarte bazterketaren aurka borrokan ari direnei.

Ekonomia solidarioko enpresek, aldiz, lane-ratzeko zailtasunak dituzten pertsonak lan munduan integratzea dute helburu, eta oro har, langileak enpresan bertan gelditzen dira lanean. Dena dela, bai gizarteratzera bideratu-riko enpresetan, bai ekonomia solidarioa dute-netan helburua enpresetako jarduera modu alternatiboan kudeatzea da.

“Kide diren erakunde edo enpresei bi eskakizun egiten dizkiegu: batetik, ekonomia jardue-raren batean eragitea edo aritzea eta, bestetik, ekonomia solidarioaren printzipioak onartzea”. Alegia, ekitatea, lana, ingurumen jasangarria, kooperazioa, irabazi asmorik ez izatea eta inguruare-kiko konpromisoa.

Autoebaluazioa egiteko auditoria soziala

Jarduna ebaluatzeko tresnak bideratzen dituzte REASetik. Horietako bat da kide guztiek bi urtetik behin egiten duten auditoria soziala: enpresa edota erakunde batek finkaturiko helburu sozialak zein gradutan eta nola lortzen dituzten ikusteko balio duen prozesua da. Hori neurtu ahal izateko, denek partekatzen dituzten aipaturiko printzipioak azpi-printzipioetan eta ehun bat adierazle multzotan dituzte banatuta. Esaterako, ekitateari dagokionez, goreneko edo ardurako postuetan zenbat emakume ari diren lanean zenbatzen dute. “Erakundeari non aurkitzen den eta egoera hobetzeko non-

dik jo behar duen ikusten laguntzen dio”, azaldu du Askunzek. Behin datuok eskuratuta, erakunde bakoitzari bi edo hiru adierazle hautatzea —emaitza okerrenak lortu dituztenak— eta horietan hobetzeko helburuak eta bideak finkatzea eskatzen zaie. Askunzek baieztatu duenez, “Sarekoek lagundu egiten diegu eginbehar

horietan, horretan oinarritzen baita hein handi batean gure jarduna: informazioa, hobekuntza, sentsibilizazioa eta halakoak”.

Bestalde, kide guztien aldetik ahalik eta parte-hartze handiena sustatu nahi dute, eta horretarako, sail ezberdinak dituzte; hala nola, interes soziala, merkatu soziala eta kontsumo arduratsua, kudeaketaren hobekuntza eta erosketa publiko arduratsua. Horiekin loturiko lan ildoak garatzen hamabi bat pertsona finko aritzen dira, baina gainera nahi duen erakundeak edo pertsonak esku hartu dezake.

REASek ekonomia egiteko modu solidarioak eta forma alternatiboak etengabe eraikitzea bilatzen du, baina hortik haragoko xederik ere badu: eraldaketa soziala. “Ahalegintzen gara REAS barneko enpresen edo erakundeen esperientzia horiek ez daitezen lekukotza esperientzia txiki batzuk soilik izan, horiek denek eraldaketa soziala bilatzera bideraturiko sarea osa dezaten nahi dugu”, diosku sareko koordinatzaileak. Beraz, ekonomia mugimendu sozial gisa ere ulertzen dute eta mugimendu hori eral-

REAS Euskadin eta REAS Nafarroan 70 enpresa eta gizarte erakunde daude, horien artean denera 1.670 lanpostu zuzen sortzen dituzte, 86 milioitik gorako irabaziekin, eta 4.300 boluntario inguru ari dira

datzen doala, tokian tokikotik eskualdera eta bertatik globalera.

Ikuskera horren isla da, preseski, sare izaera. REAS Espainiako Estatuko hamaika lurraldetan dago egun eta sare sektorialak ere badaude sektore jakin batean lan egiten duten erakundeak biltzeko; esaterako, banka etikaren sektorea (FIARE), berreskuratze eta birziklatze eremuan lan egiten duten erakunde eta enpresak (AERESS sarean bilduta), eta aurrezki txiki eta gertutasun kredituenak. Nazioartean, RIPESS (Ekonomia Sozial eta Solidarioa Sustatzeko Kontinente Arteko Sarea) dago.

“Guretzat ardatz batzuk ezin bestekoak dira eta horietako bat Fiare da”, adierazi du koordinatzaileak. Fiare REASen baitan dago, eta aldi berean, REAS Fiaren baitan dago. Hego Euskal Herrian 2005ean sortutako banku etikoaren proiektua da Fiare. Ehundik gora erakunde sozialek bultzatzen dute eta aurreztaileen dirua gorde eta interes apaleko maileguak ematen dizkie gizarte bazterketaren aurka borrokan ari direnei. Euren irudiko, erabaki ekonomiko guztiak, funtsean, erabaki etikoak dira, sineskera marko jakin batean barruan hartzen dira eta haien ondorioak batzuen onerako eta beste batzuen kalterako dira. Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan ditu bulegoak eta hedatzeko lan handia ari dira egiten, sentsibilizazio kanpainen eta herriz herriko hitzaldien bidez. Halaber, webgunea (economiasolidaria.org) eta hamabostean behin kaleratzen duten buletinak dituzte, informazioa zabaltzeko.

Merkatu soziala erronka

Aurrera begirako egitasmoei buruz galdeginda, Carlos Askunzek merkatu sozialaren gaia mahairatu du: “Kontsumo arduratsuago, justuago eta etikoagoaren beharraz kontzientzia-

Gizarteratzera bideraturiko enpresek izaera iragankorra dute, langileak sei hilabete eta hiru urte bitartean baino ezin dira egon. Denbora tarte horretan gaitasun pertsonal eta profesionalak eskuratuko dituztela aurreikusten da

tua dagoen pertsona batek ekonomia alor guztietan kontsumo solidarioa eta alternatiboa egin dezan lortu nahi dugu”. Horretarako, ekonomia solidarioaren alorrean dauden ahalik eta ondasun eta zerbitzu gehien gizartean dagoen kontsumo kritiko eta solidarioarekin uztartu nahi dute. Zentzu horretan, aliantzak egitea aurreikusten dute, Nekasare-rekin (baserritarren eta herritarren taldeen sarea), Fiare-rekin, REASen barruan dauden gizarteratzeko erakunde eta enpresa solidarioekin edota merkataritza justua egiten duten taldeekin.

Kideen kopuruak gora egin duela adierazi digu koordinatzaileak: “Krisiak lagundu du jendea sistemarekiko kritikoago egiten, ekimen eta itxaropen handiagoa edukitzen eta ekonomia beste modu batera egin daitekeela sinestarazten. Duela urte batzuk inork gutxik zuen ekonomia solidarioaren inguruko berririk, eta izatekotan, txiroentzako ekonomia zela pentsatzen zen. Azken hauteskunde autonomikoetan, ordea, ia alderdi gehienek txertatu

zuten euren programetan ‘ekonomia solidarioa sustatzea’ leloa. Hori bai, gero horrek oihartzun praktikoa izatea beste gauza bat da”. Hain juxtu, politikarien ustezko borondatea ezerezean geratzen dela salatu du Oraitxeko langileak: “Guk ezin dugu enpresa indartsuen kontra lehiatu prezioei dagokionez, eta beraz, gure lana zentzu handi batean erakunde publikoek gai hauen aurrean duten jarreraren menpe dago”.

Nolanahi, Askunzeren esanetan udalerrri txikiagoetan esperientzia baikorrak jarri dituzte abian eta ekologia geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari den eremua da oro har. Herritarrek ekonomia, politika eta gizarte alorretan zeresan handiagoa izan nahi dutela argi du Askunzek, eta suminduen mugimendua da horren isla. ■




CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadribus.com



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
 HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
 DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
 ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
 DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
 GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Rebeka Arraras

«Emakumeok mundua nola eginen genukeen pentsatzeko garaia da»

Orain dela 18 urte emakume enpresari gazte talde batek Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarte (NEEZE) sortu zuen. Hasiera-hasieratik Rebeka Arraras diseinatzaile iruindarra izan da presidenteordea. Beste emakume asko bezala zerbitzu enpresa txiki bateko burua da. Halako enpresak ia inoiz ez dira agertzen albistegietako lerroburretan edota dirulaguntzen hartzaileen artean, baina hauek dira, gaur egun, pertsiana itxi gabe, enpleguari tinkoen eusten diotenak.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Emakumea, enpresaria, euskaldun konprometitua... *Rara avis* bat zara?

Ez! Egokitu zaidana besterik ez. Euskalduna naiz txikitatik, ikastolan ikasitakoa, eta euskarekin konpromisoa izatea niregan zerbait naturala da. Agian halako elkarte bateko zuzendaritza taldean hainbeste urtez egotea, besteen konfiantza mantenduz, hori bai izan daitekeela berezi samarra. Dena den, ni ez naiz euskaltzale bakarrik elkarteetan. Gure logotipoa hasieratik elebiduna da, gaztelaniaz eta euskaraz idatzia dago, eta hori hala bada ez da nigatik bakarrik.

Duela 18 urte abiarazi zenuen elkarte. Zertarako?

Garai hartan emakume gazte batzuk hasi ginen enpresak sortzen eta kasik konturatu gabe, taldetxo bat eratu genuen gauzak eztabaidatzeko. Beste arlo askotan bezala, enpresa munduan ere desberdintasun pila ikusten genuen gizon eta emakumeen artean eta erabaki genuen beste tokietako elkarteekin harremanetan jartzea haiek zer egiten ari ziren ikusteko. Uste dut oso konprometitua izan garela beti eta baita oso independenteak ere. Inoiz ez gara lerratu izan talde edo alderdi politiko baterantz. Gure zuzendaritza batzordea oso anitza izan da beti eta hori biziki garrantzitsua da.

Zer egiten duzue elkarteetan?

Gauza asko: topaketak, formakuntza saioak, aholkularitza eta dokumentazio zerbitzuak eskaini, eta argitalpenak eta urteko emakume zuzendari eta enpresariaren saria banatu, besteak beste. Duela hamar bat urtetik ari gara kontziliazioan sakon lanean. Oso proiektu polita dugu: hainbat enpresatan etxearen eta lanaren arteko bateragarritasun plangintzak

Nortasun agiria

Rebeka Arraras Iruñean jaio zen 1967ko azaroaren 21ean. Ingeniaritza ikasten hasi eta hiru urte igarota, sormena nahiago zuela ikusita, diseinu industrialean hasi zen. Hiru urte Zaragozan eta bost Bartzelonan bizi ondoren, itzuli zen: "Bartzelona izugarri gustuko badut ere, garbi nuen Euskal Herrira itzuli nahi nuela eta hemen ere aukerak izango nituela nik nahi nuena egiteko". 4 urteko mutiko baten ama da, Telmo Hartzitza, gure kostaldea eta barnealdeko basoak biltzen dituen izen esanguratsua. RBK Diseinu enpresako burua da, Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarte (NEEZE) presidenteordea eta Bai Euskarari ziurtagiriaren zuzendaritza batzordeko kidea.





garatzen ari gara. Lortu dugu enpresa askotxotan, eta ez soilik berdintasun planak egitera behartuta daudenetan, halako plangintzak abiaraztea. Enpresa Txiki eta Ertain askotan ere bai. Kontziliazio plana oso tresna interesgarria da urrats sendoak emateko. Konpromiso hau onartzen duten enpresei *Reconcilia* izeneko bateratze zigilua ematen zaie. Langileen bizitza pertsonala eta lanaldia bateragarriagoak izan daitezen egindako ahalegina aitortzen zaie era horretara.

Gizonezkoek ez zuten interes handirik zuek mugitzen hasi baino lehen?

Gizonezkoek, normalean, ahal izanez gero, ez dute ezer egiten, eta enpresa munduan ere oso gutxi. Zuzendaritza taldean emakumezkoik dagoenean edota arazorik sortzen bada, edo sor litekeela uste denean, orduan zerbait egiten da. Dena den, hori ere enpresa motaren arabera izaten da. Enpresan emakume asko ari bada lanean, langileen gehiengoa direnean, errazagoa da zerbait egitea. Gauzak pixkanaka aldatzen ari dira eta kontziliazioa balio erantsi bezala ikusten hasia da. Enpresaren funtzionamendu egokia eta emaitza onak lortzeko lagungarria da argi eta garbi: jendea pozik badago, lan gehiago eta hobe egingo du. Enpresa bakoitzak erabakitzen du zer neurri hartuko dituen: txanda aldaketak, haurtzaindegia enpresa barruan, pizgarri ekonomikoak, telelana, eskolako oporretara moldatutako oporraldiak, udako ordutegia, lan aholkularitza, diru-laguntzak ibilgailuak erosteko, seme-alaben hezkuntza gastuetarako eta aseguruak ordaintzeko, jubilazio planak... Ordutegi malgutasunarena ez da neurri bakarra.

Euskaldunon koloreak

"Gure koloreak urdina eta berdea dira. Itsasoa eta mendia. Kultura bakoitzak bere nortasuna irudikatzen du bere koloreetan, bere grafismoan, janzkeran, portaeran... Diseinuak gauza horiek guztiak aintzat hartzen ditu. Airean dagoen zerbait da. Mundu globalizatu honetan bakoitzak bere nortasuna erakutsi behar du, besteena errespetatuz".

Emakume enpresari eta zuzendariak, hau da nagusiak, uste dena bezain gutxi al zarete?

Gero eta gehiago gara. Ez gehiegi baina poliki-poliki handitzen doa kopurua. Enpresa sortzaileen artean ia erdia gara. Zuzendaritza postuetan, aldiz, ez horrenbeste. Hasi gine-nean %2 besterik ez ginen eta gaur %30 inguru, Espainiako Estatuan baino goraxeago. Kasu askotan emakumeak agertzen dira ageriko zuzendaritza postuetan, ikusten diren tokietan, administrazio kontseilueta kasu, baina haien azpitik, goi mailako teknikariak, gehienak gizezkoak izaten dira. Oraindik traba ugari gaingitu behar ditugu emakumeok, horien artean oztopo kulturalak eta aurreiritziak: ez ditut aukera berdinak izango, haur bat izanez gero arazoak... Horregatik emakume asko beldur izaten dira.

Emakume-lorontziak zenbait kasutan?

Baten bat agian bai, baina gizezko batzuk bezala. Administrazio batzordeetan eta bilera horietan gizon batzuk ere badira lorontziak, eta ez dira zergatik jakintsu, baliotsu eta azkar izan behar han egoteagatik. Ez zaie eskatzen hainbeste. Enpresa Txiki eta Ertainetan ez da gauza bera gertatzen. Hor finantza eta gizabaliabide ataletan emakume asko egoten dira. Halere, oraindik ere, soldata desberdintasun handiak badira. Tranpa pila egiten dute. Oinarritzko soldata berdina izaten da, baina gizezko askok mota askotako gehigarriak dituzte. Elkartetik hori ikertu nahi izan dugu baina enpresek ez dute informaziorik ematen eta inork ere ez ditu bere nomina erakusten.

Zenbait lanbidetan emakumeak nagusi. Enpresarien artean ere halako joerarik ikusten da?



Bai. Argi eta garbi. Emakumeok sortzen ditugun enpresak zerbitzu alorrekoak dira gehienbat. Orain arte lehenengo eta bigarren sektoreko ogibideak gizonezkoenak izan dira eta horrela jarraitzen dute izaten. Nekazaritzan eta abeltzaintzan emakumeak gehixeago hasi gara ikusten, baina industria alorrean oso gutxi. Zerbitzu sektorea berriagoa da eta, oro har, sartzeko aukera hobeak ditugu. Arlo honetan orain emakume sortzaile asko dago. Enpresak txikiak izaten dira, langile gutxiak eta inbertsio txikiak eskatzen dituztenak. Enpresa hauek oso egoera zailean daude, normalean, zerbitzu enpresek ez dutelako diru-laguntzarik izaten eta are gutxiago mikroenpresak direnean. Baina, aldi berean, halako enpresek enplegu egonkorra eta kalitate handikoa sortzen dute. Erakundeek ez diete garrantzi handirik ematen. Beti kezkatuta ibiltzen dira enpresa handiekin eta krisia gu ari gara sufritzen.

Gauzak egiteko modu desberdinak ditugu emakumeok?

Ni ez naiz antropologoa baina uste dut giza-kiaren eboluzioari esker ezaugarri desberdinak ditugula eta ez da ezer gertatzen, ez gara gutxiago horregatik. Enpresan, zuzendari-tzan, lanean... desberdin jokutzen dugu, baina bizitzako arlo guztietan denon artean egin behar ditugu gauzak.

Agintzerakoan ere nabari al da aldea?

Bai, eta uste dut gehiago nabaritu beharko litzatekeela. Askotan emakumeok gizonen

Emakumea eta diseinua

"Nik uste dut emakumeak oso sortzaile eta diseinatzaile onak garela. Gure ezaugarrietako bat da. Enpresa munduan, arte munduan... ez digute tokirik utzi izan, baina asko dugu esateko eta munduari emateko. Emakumeok mundua birdiseinatuko bagenu, autoak, jantziak, tresnak, etxeak... Dena desberdina izango zen".



Eibar

Liburu azoka urriaren 14tik 23ra, Unzaga plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

jokamoldeak kopiatzen ditugu. Haien erara egitea erabakitzen dugu, guk nahiago genukeen modua bazterrean utzita eta deliberraten dugu gogor jartzea, haserretzea... Emakumeok elkarriketarako irekiagoak gara, lasaiaagoak. Gizonezkoek batzuetan esaten dute gu liskartsuagoak garela, bekaiztiagoak, baina hori ez da egia. Horiek aitzakia hutsak dira. Izaera, portaera desberdinak egotea beharrezkoa eta aberasgarria da. Zuzendaritza eta enpresa munduan ere, estilo desberdinak errespetatzen ikasi behar dugu. Gure jokatzeko molde propioak dira, hain zuzen, emakumeok gizar-teari emateko duguna. Mundu osoaren aldaketa nahi dugunok emakumeak duen garrantziaz egin behar dugu gogoeta. Historian gizonak izan dira protagonista eta emakumeok ezkutuan egon gara. Haiek antolatu dute gaur dugun bizimodua eta orain ikusten da dena oso gaizki doala. Emakumeok mundua nola eginen genukeen pentsatzeko garaia da.

Emakumeoi leporatzen digute ausardia falta eta hori negozioetarako ezinbestekoa omen da.

Emakumeak beldurtiagoak ala zuhurragoak gara? Ausartak ala errealistak? Gizonezkoak adoretuak dira eta gu errealistak? Zer da hobe? Haiek porrot indize handiagoa dute enpresetan. Emakumezkoak egiten ditugun enpresak, berriz, txikiagoak dira baina egonkorragoak. Krisi garai honetan emakumeen enpresa gutxiago itxi dira, txikitu garelako, hala edo nola baliabide eta diru gutxiagorekin mantentzen ditugulako. Gizonezkoek, aldiz, itxi eta kito eta ondoren sortu, lortu edo sartu nonbait. Emakumezkoak aurrera jarraitzen dugu, kasu askotan oso diru gutxi irabazita, lanpostuak mantentzeagatik, bereziki. Zer da hoberena halako kasuetan? Batek dakil!

Esaten dute Nafarroan ez dela erosten, ezta saltzen ere: heredatu baizik. Gaur egun egia izaten jarraitzen al du horrek?

Nire ustez garai batean bai, betiko enpresak ziren mantentzen zirenak, baina orain jada ez. Orain oinordetzan hartzen direnak harremanak dira. Instituzioekin, agintariekin harreman onak badituzu askoz errazago duzu dena, gobernu hori edozein koloretakoa izanda ere. Agian enpresak abian jartzeko adorea bai jasotzen dela aurrekoengandik genetikoki, ez dakit. Norberaren nortasunarekin doa. Gure familian aitona, aita eta osa-

AZKEN HITZA

Familia

"Aitona eta amona Gaztelu Plazan bizi ziren eta euskaldun peto-petoak ziren. Amona Zegamakoa zen, apenas ikasi zuen gaztelania. Aitona Leitza-koa. Oso gazte etorri ziren Iruñera eta harremanak euskaraz izango zituzten arazorik gabe. Hala ere, aita eta bere anai-arrebak erdaldunak ziren. Gu lau anai-arreba gara, ni txikiena ikastolan ikasitako bakarra. Aitonak eraikuntza enpresa bat izan zuen eta gure aitak nekazal elikaduraren arloko enpresa bat zuzendu zuen Tafallan".

Sare informalak

"Orain arte emakumeok ez dugu aukera handirik izan beste enpresetako kideekin astearte batean elkarte batera afaltzera joateko edo paddlean edo golfear aritzeko. Ez dugu aukerarik izan edota ez dugu nahi izan, baina haiek bai. Gizonek maiz lantzen dituzte halako harremanak eta horiek guztiak negozioetarako baliatzen dituzte gero".

bak izan dira enpresetako buru.

Zuek Merkatal Ganberan eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioan parte hartzen duzue, besteak beste. Harremanak normalizatuak daude elkarte garrantzitsu hauetan?

Erakunde hauetan gure ordezkaria dugu, gure lehen-dakaria, María Victoria Vidaurre. Berak oso harreman onak dauzka, baina zenbateraino hartzen gaituzte kontuan? Ez asko, egia esan. Ni nahiko kritikoa naiz horrekin eta

barruan egoten uzten digute, kontrolpean errazago edukitzeko, pentsatzen dut. Gure iritzi eta ekarpenak onartzen dituzte komeni zaienean, baina ez dugu pisu handirik. Hala ere joan behar da. Ematen badizute aukera hor egon behar duzu eta, gutxienez, hitz egin. Gauzak mantso, baina aldatzen doaz. Jende gaztea sartzen ari da, adibidez. Ilusionatuta gaude horrekin eta modu bat da emakumeak ikusarazteko. Hau nire iritzi pertsonala da.

Euskara arrotza da enpresarien elite horretan, Nafarroan?

Ez pentsa. Euskal munduan mugitzen garen agente guztiek pixkanaka lortu dugu euskara beste modu batez ikusia eta onartua izatea. Nafarroan horren beharra genuen, eta nik uste dut argi nabari dela aldaketa. Beldurtuta egon gara urte askoan eta oraindik segitzen dugu, neurri batean. Duela hogeit urte nik ez nuen inoiz izaten lan harremanik euskaraz, eta orain gero eta gehiago. Del Burgo jaunak iragartzen zuena, ikastolak, eta euskarazko irakaskuntza oro har, *okerrena* izango zela, gauzatzen ari da egun. Euskaraz ikasitako lehen belaunaldiak, orain 40 urte ingurukoak, gizar-teko goi postuetara iristen ari gara orain.

Birdiseinatu beharko genuke, oro har, euskaren inguruko diskurtsoa?

Bai, eta batez ere haur eta gazteentzat. Nik, adibidez, euskaraz hitz egiten dut 4 urteko semearekin, baina berak, jada, bereizten du eta ikastolako lagunekin erdaraz aritzen da. Ni ere nerabe garaian gaztelaniaz aritzen nintzen errazago egiten zitzaidalako. Adin horietan gauza errazak nahi izaten dituzte. Gero, aldiz, heldu egiterakoan, normalean, gazte horiek euskara berreskuratzen dute edo euskaltzaleago egiten dira. Gaztetxoan buruan sartu beharko genuke eta ikusi nola pentsatzen duten, haien hizkuntza eta tresnak erabili eta aukerak eman euskara erabiltzeko. ■





Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Ulermena oinarri

Aurtengo Nafarroa Oinez antolatzeaz arduratu den Tafallako Garcés de los Fayos ikastolan metodologia berri bati ekin diote, ikasketa guztien oinarri irakurketa bihurtuz. Ulermena da gakoa, testuak ulertuz errealitatea interpretatzen ikas dezaten.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

“IRAKURTZEA EZ DA IDEIAK, ezagutza eta informazioa zuzen-zuzenean jasotzea; irakurleak testua interpretatzen du eta, norbere ezagutzatik, egitasmo intelektualetatik eta sentiberatasunetik abiatuta, testuaren esanahia eraikitzen du”. Horra ikastolako zuzendaritza taldeak azalduzkoa. Oinarri horrekin, garrantzia ematen diote irakurritako testuak aztertzeari. Hots, ulermena dute ardatz nagusi, ikasketarako ezinbesteko abiapuntu dela jakitun.

Duela urtebete inguru, ulermen proba batzuk egin eta emaitzak ikusi ostean Nafarroako Gobernuak irakurketa oinarri zuten proiektu batzuk sustatu zituen. Arazo batzuk medio ekimenak aurrera atera ez ziren arren, Ikastolen Federazioari interesgarriak iruditu zitzaizkion eta horietako bat bereganatu zuen. Hala, Víctor Moreno idazlearen teorian oinarritutako prestakuntza jaso zuten iazko ikasturtea hasi aurretik Tafallako irakasleek. Morenoren arabera, irakurtzean zenbait gaitasun landu behar dira eta ikasleei irakurtzen irakatsi behar zaie. Ulermena lantzea da ekimenaren

Ulermena lantzea da ekimenaren xedea eta horretarako ezinbestekoa da sistematikoki lau gaitasun lantzea: identifikatu, interpretatu, antolatu eta balioetsi

xedea eta horretarako ezinbestekoa da sistematikoki lau gaitasun lantzea: identifikatu, interpretatu, antolatu eta balioetsi. “Kontzientzia garrantzitsua eta beharrezkoa da, gauzak egiteko moduari eta arrazoiari erreparratzen zaiolako. Ekintza bakoitza zein helbururi lotuta dagoen jakiten dugu eta hori funtsezkoa da”, diote Garcés de los Fayoseko irakasleek. Alegia, lehen mekanikoago egiten zuten lan, baina orain ikasleak pentsatzera eta

gogoetatzera jartzen dituzte edozein testuren aurrean, iritzirikritikoa sustatuz eta lanerako duten jarreran eraginez. “Ikasketa gaur egun ezin da informazioan oinarritu”, informazio hori eskura daukagu, toki guztietan, eta berau ulertuz eta interpretatuz ondorioak ateratzen jakitea da gakoa.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan esaterako, errealitatearekin harremanetan jartzen dira eta DBHko koordinatzaile Izaskun Aldaiak dio horrek aukera ematen diela konturatze berran egiten duten lanak errealitatearekin eta egunerokotasunarekin zerikusia duela, eta ez dela lau pareta artean geratzen: “Egu-



**Zatoz Tafallara,
badira hamaika arrazoi**





Goiko irudian, Garcés de los Fayoseko DBHko gazteak, testuen ulermena taldeka lantzen. Behean, ikastolako LHko haurrak.



neroko gaien inguruan egiten dugu lan, gaur egun munduan gertatzen diren gauzen inguruan, telebistan ikusten dituzten horien inguruan. Beraz, hemen ikusten dena errealitatearekin lotzea lortzen dugu”.

Gogoeta prozesua

Metodologia hiru fasetan banatzen da: “Irakurri baino lehen”, “irakurri bitartean” eta “irakurri ondoren”. Bakoitzean gaitasun batzuk lantzen dituzte. Irakurri aurretik

iRuNazarra

TaBERNA • JaTeTXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.es · www.irunazarra.org





Kontxako olatuen gainean, bertako produktuenganako arreta bereziarekin

B R A N K A

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
 ☎ 943 317 096 · Faxe: 943 214 890
branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com

Etxeko fakturak aztertzen

Proiektuari buruz galdetu diogu Beatriz Azkona Garcés de los Fayos ikastolako ikasleari. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari da eta honakoa erantzun digu: “Lehen ez genituen gaiak sakonki lantzen, galdera batzuk baino ez genituen erantzun behar eta horrek ez gintuen gauzei buruz pentsatzera eta hausnartzera bultzatzen. Orain, gure inguruan gertatzen den horrekin konparaketak egiteko parada dugu. Gure eguneroko bizitzan beharko ditugun gauzak lantzen ditugu, eta hori oso interesgarria da. Duela hilabete gutxi, adibidez, Iberdrolako faktu-

ra bat eman ziguten, eta hasiera batean zaila izan zen datuak aurkitzea eta sailkatzea. Inoiz ez genuen horrelakorik ikusi, normalean gurasoak direlako etxean horrelako paperak eskuartean izaten dituztenak. Oso ariketa interesgarria izan zen, ikasitakoak gerora lagunduko digula eta balioko digula sentitzen dugulako. Testuak interpretatzen eta ulertzen ikasi dugu, hitzen atzean dauden esanahi esplizitu eta inplizituak arakatzan ditugu eta horretaz guztiaz solastatzen gara, bakoitzak pentsatzen duena agertuz eta argudiatuz”.

aurrezagutzak eta hipotesiak jorratzen dituzte, irakurri bitartean esanahiak eta zalantzak, eta ondoren hainbat eratako galderen erantzuna bilatzen dute.

Lehen, testu bat irakurri eta horri buruzko galderak planteatzen zituzten, baina orain, balorazioek indarra hartu dute. Testu baten aurrean beste jarrera bat izaten ikasten ari dira gazteak. Halaber, irakurri aurreko lanari dagokionez, orain arte Haur Hezkuntzan baino egiten ez zituzten prozedurak berreskuratu dituzte: alegia, ipuina aurkeztea, izenburua, azala, idazlea... aztertuz; zein ezaugarri dituen ikusita, hipotesiak egin ditzakete. Izenburua irakurtzearekin soilik burura datorkiena interesgarria da, lana amaitzean konparatu egin dezaketelako hasieran pentsatzen zutenaren eta benetan istorioak kontatzen duenaren artean. Lehen, identifikatzeari ematen zioten garrantzia, orain aprobetxatzen da haurrek dakitena balorazioak eta interpretazioak egiteko.

Adin guztietara egokitutako plangintza

Betiko ariketak eta probak egiteaz gain, testu bana lantzen dute hiruhileko eta irakasgai bakoitzean. Testuak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hez-

kuntzan lantzen dira eta dauden ikasturtearen araberrako zailtasuna dute; lehenengo urteetan, adibidez, testu narratiboak baino ez dituzte lantzen. Testuek irakasgaian lantzen ari direnarekin zerikusia izaten dute, baina baita une horretan gizartean gertatzen denarekin edota egunerokotasuneko egin-beharrekin ere. Bigarren Hezkuntzan esaterako, etxera iristen diren fakturak aztertzen dituzte, edota une horretan bertan munduan dagoen arazoren baten ingurukoak. Eta Haur Hezkuntzan, *Txanogorritxo* bezalako ipuinak: bertan kontatutakoa haurrek euren bizitzarekin lotzen dute eta ongi dagoenaren eta gaizki dagoenaren arteko konparaketa egiten dute, esaterako. Lehen Hezkuntzan argudio testuak lantzen hasten dira, narratiboekin ere jarraitzen duten arren.

Lana bakoitzaren bizipenetatik hasten dela diote Tafallako ikastetxeko irakasleek. “Metodologia honekin, irakaskuntza esanguratsua goa eta baliogarriagoa izan dadin saiatzen gara”, azaldu digu ikastolako zuzendari Rexu Urrutiak. Gainera, irakurtzeko grina piztea ere ekimenaren asmoen oinarrian dago, noski. Gogorik behintzat ez zaie falta iazko ikasturtean abiatutako biderei jarraitzeko. ■




Galar Sola
fruitategia

Merkatu plaza, 47
Tafalla (Nafarroa)
☎ 948 703 718

MARCOS
okindegia

Benetako
aitzinako ogia

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



Tolosako Babarruna

Hoberenak
soilik
aukeratzen
ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

TTAKUN (H)ERRENKA

Mundua baino ez

M

undua baino zerbait gehiago aldatzen delako beti” diozu uneren batean Jose Luis, eta nire materialismo

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

praktikoaz barre egiten duen lagun bati –bere misterioarekiko atxikimenduaz egiten dut nik–, esaldiarekin zer ulertzen zuen galdetu nion. Ez dut jarriko zer erantzun zidan, topikoa da. Gauza askotan sinesten duen jendea ezagutzen dut, baita Jainkoan ere; beste bat unibertsoaz eta horrela aritu zitzaidan, kosmosa bezalako hitzekin, entzun orduko hizkuntza arrotzen didatenak. Hau dena diot ohartu naizelako mundua dela erabiltzen dudana unitate handiena, eta halakoetan zabarkeriaren bat egin dudanaren sentsazioz geratzen naiz. Ez naiz unibertsoaz pentsatzeko gai; gehienez orain, zaborraz hitz egiteko –erortzen ari omen zaiguna–, eta zaborrak mundu egiten du ukitzen duen gutzia. Gurea da.

Lanera aste honetan itzuli naiz, bi asteren ondoren, eta jaikitze orduan bertan hasten da errealitatea nire baitan gainezka egiten, fikzio dosi handia behar da eguneroko jarduerari zentzua emateko, antzerkiak niretzat ere zentzuren bat baduela sinesteko. Mundua oso azkar hasten da beste inorena izaten. Eta ondoan esertzen zaizunarekiko errealtateak jasaten du nekearen gorabeheren pisua, minutu bat bestearen atzetik mahaitik altxa ezin, gaur agian “eskerak” pentsatuz, hitz azaleko zenbait behar nuelako, beti daude gaiak, baina bihar beharbada presentziak hilabete gehiago irauten badu kontrola galduko dudala sinestuta –eta asteburua iristen da–. Eta irratia entzuteko kaskoetatik Libiako ipuinaren azken datuak iristen zaizkit, dagoeneko narrazio bila dabilzanak, behin garaipena ospatu osteko bonbardaketek ez baitigute

sosegurik ematen horixe baino nahi ez dugun klase ertainari.

Libian gehiago bizi dute gure mundua euren baino, eta beharbada han behar lukete gure beldurrek ere, hainbeste seinalatzen dizkiguten honetan; diru-zorro lapurrei, hogei euro baino gehiago kendu ezingo dida-

tenean; poltsa osoa lapurtzeari, iPhone garestirik ez baitut, segapoto zaharkitu bat baino... Amarena zenean dagoeneko bigarren eskuko zen kotxe zaildura sartu zitzaizkigun pasa den astean, eta eskuetako krema eta komuneko papera eraman zuten, bertan lo egin eta zigarroak erretzen aritu ziren. Besterik ez. Norena da orduan lapurrarekiko beldurra?

Eta nire neurritan ez den mundu batean zehar, eta ezer aldatzerik baduten zalantza egiten dudana hitzez inguratuz (ze narrazio salbatzen du edozein europar Libiako sarraskitik?), besteen bizitzak eraikitzen aritearen sentsazioz, harremanen bat-batekotasunean galdurik, urrundu nahi badut, irakurri egiten dut, gezurrak gehienetan, hurbildu egiten nauena, egiak ordenatzen dituztelako, nire neurriko eginez, eta batez ere, noizean behin konplizeren bat topatzen dudana eremua delako; urruntzen naudelako gerturatzen nau, ito aurretik. Eta hori, zaborra bezala, mundua da, gurea, gurekin desagertuko dena. Munduak, nire buruak, jasagarria izateari utziko lioke fikzio horiek gabe, munduaz ari diren gezur horiek guztiak, *kit* indibidualak, burmuin bakar batentzat eskuragarri; eta ez ihesbideak ematen dizkidatelako, egotea posible egiten didatelako baino, gero eta gehiago ulertzearen bidez, edo hurrengo galderak kitzikaturik. Agian literatura zinismo ariketa bat baino ez da dagoeneko. Edo agian hainbeste gezurrek noizbait errealtatean guztiz ezingai egingo nau. ■



«
Lanera aste honetan itzuli naiz,
bi asteren ondoren, eta jaikitze orduan
bertan hasten da errealitatea nire baitan
gainezka egiten, fikzio dosi handia behar da
eguneroko jarduerari zentzua emateko,
antzerkiak niretzat ere zentzuren bat
baduela sinesteko
»

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

Apatiaz

Elhuyar Hiztegiak apatia definitzeko orduan: axolagabekeria, arduragabekeria, laxokeria, zabarkeria hitzak erabiltzen ditu. Bizitzako edozein esparrutan, dela bikotea, dela lana, dela komunitatearekiko konpromisoa... ez da apatia baino jarrera edo aldarre okerragorik. Motibazioak edo barru-barrutik sortzen zai-gun bulkadak aktibatu egiten gaitu, geure hori aurrera ateratzera bultzatzen gaitu, egocera zailenetatik irteten laguntzen digu, erresistentzia gaitasuna ematen digu.

Motibazioa lausotzek berriz, apatian murgiltzen gaitu. Inguruarekiko interakzioak (lagunarteak, arduradunak, politikariak...) aktiba gaitzakeen moduan, era progresiboa, motelduz ere joan gaitezke, motibaziotik motibaziorik ez-era. Bere bidea egin nahi duen taldetik esaneko artaldera.

Lehenengo begiratuan pentsa daitekeenaren aurka, gizarte motibatua ez da antza interes publikokoa. Gurean badira apatiari aurre egin eta esnatu diren hamaika adibide. Era-kunde publikoen boterearen erabilera okerrak batzuei apatia eragiten die eta beste batzuk esnatu egiten ditu, aktibatu, mobilizatu.

Mobilizazio horren adibide garbia zen Kukutzaren kontra agintariak burututako eraso desproporzionatuak, hiritarrak esnatu ditu oraingoan. Autoeraketaren suari haizea eman diote eta garra zabaldu egin da. Kukutza gizarte



JUDITH FERNANDEZ

zibilaren autoeraketa gaitasunaren adierazle bikaina izan da eta botere publikoak Kukutza desprestigiatzea bilatu du lehenengo eta indar erabilera desproporzionatuaren bidez, eraikina suntsitzea lortu du ondoren. Eraikina bota dute, baina espiritua, sena, inoiz baino biziago agertu da.

Nola liteke gizarte zibilaren protagonismo eta parte-hartzea ipar izan beharko lituzkeen gizarte proiektu batean, horren adierazle diren adibideak isilarazi eta desagerrarazi nahi izatea? Botereak gizarte erreakzioaren kontra gogor jotzeak ez du motibaziorik sortzen, amorrua edo apatia eragin ditzake; lehenengoa hobe bigarrena baino. Ordena publikoa ezartzea helburu duen botereak, desordena lortzen du modu honetan, eta hala hobe, horren aurrean isiltzen den gizarte apatian murgildu den seinale baita.

Zein interes dute politikariek apatia bultzatzeko? Lehenago ere, krisiak gogor jotako herrietan autoeraketak herritarrak politikarien aurretik jarri ditu. Agintariak ematen ez ziena, edo emateko gai ez zirena, herritarrek euren kabuz lortu zuten (Kukutza horren adibide garbia). Lau urtean behin ahalmen delegazioa egiten dugu hiritarrok. Herriak nahi duena emateko gai ez denak, gutxienez herriak lortu duena errespetu beza. Ala, apatia beharrean amorruaren bila ari al gara? ■



Zein interes dute politikariek apatia bultzatzeko?(...)
Agintariak ematen ez ziena, herritarrek euren kabuz lortu zuten (Kukutza horren adibide garbia)

TXANDAN

Igor Estankona



Bertatik pasatu dira, Gorbeaitik bueltan, gazteen koadrilak eta mendigoizale zaharrak. Gazteentzat Anjelinesena da. Zaharrentzat Rojoren taberna. Han ezagutu dut beti Anjelines: bi sartzen diren lekuan sartuz beste bi. Kaleko katuen irudia daukat, Burtzon txakurrarena, Hilari porru eta Txomin gorriarena, atsoak negarrez eta barreka, baba gorrien usaina, umeak ur baso bat eskatuz, gozokiak eta gailetak, EH Sukarra bozgorailuan, “zelan dabil ama, laztana?”, musularen keinuak eta Marijoseren ile apaindegiko bezeroak. Kafesnea zerbitzatzen zuten guztientzat Anjelinesenean, salda

Pasatu dira

beroa gabonetan, eta udan euliek *krak!* egiten zuten sabaiko argi urdineko tranpan. Makinan pantaila guztiak pasatu zituen Aitorrek, eta Aritzen aitek zortzi fitxak aho-ratu zituen behin igel-tokan...

Urri bigarrenarekin itxi zuten betiko, eta Anjelineseneko komunetik atera nintzelarik azkenekoz, era honetako munduko taberna bakarra iruditzen zitzaidan beste behin. Mahaiak janariz beterik zeuden, limoiak helduta horma-kontran. Mirentxuk ez zidan kobratu nahi izan. Zelan ordaindu, ordea, bizi izan dugun guztia artearrok han? Pribilegiatuak, Anjelinesen taberna ezagutu dutenak. ■



Joseba Iturriz

MEDEAK TALDEKO KIDEA

Hondarribiko eta Alardeko naziak

Goizeko sei eta erdiak, ohetik altxa, kotxea hartu eta Hondarribira. Ezin nuen imajinatu XV. mendera egin-dako bidaia horrek gordeko zidana. Egonda nengoen herri horretan, normaltasunez jantzitako beste egun batean. Arkupeetara iritsi behar nintzen, jendea galdezka, eta hara non, *mobida* erdian agertu nintzen. Espaloira salto egin orduko izutzen hasi nintzen, ezin nuen kalea ikusi, eskuek eusten zituzten plastiko beltzek dena estaltzen zuten. Espaloia emakumez bete zegoen, denak garrasika, haserre aurpegiak edonon, eta ni han erdian eta aurrera egiten. Emakume haiek nigan erreparatu zuten eta nazka aurpegiak sumatzen nituen. Batek oihi egin zidan: “Zer egiten du honek hemen! Besterik ez genuen behar!”. Hori entzun eta adore txerto bat balitz, plastiko beltzen azpitik pasa nintzen, errepide erdian agertuz.

Errepidean ikusi nuenak ez ninduen baretu: ertzainez inguratutako desfilea. Erdian betiko txapel gorriekin aurrera egiten zuten gizon eta emakumeak, alboetan polizia-katea, eta segituan ia ertzainei pegatua, plastiko beltzak. Txaloka eta garrasika hasi nintzen “Aupa Alarde mistoa! Aupa neskak!”. Nire garrasiak plastikoen atzetik zetozen koroek estaltzen zuten: “Betiko Alardea!”. Ertzain batek sorbal-



DANI BLANCO

daz jo eta plastikoen kontra bota ninduen, begietara begiratu nion, gizakia zela gogoratzen zuten zulo horietara, eta lasai galdetu nion: “Zer egiten ari zara?”. Begiek erre-
kionatu eta nire bidea lasai egiten utzi zidan. Segituan aurkitu nuen babesa arkupeetan.

Txaloka jarraitzen nuen, baina ezin nuen gainetik kendu tripetatik igotzen zitzaidan urduritasuna, antsietate puntu bat ere

banuen. Perlaz eta diruz jantzitako emakume horien garrasiek zuri-beltzeko filmak ekarri zizkidaten burura, nazien pelikulak. Judutarrak getthoetan sartu behar zituzten eszena horietako bat. Espaloietan, ondo jantzitako herri alemana, judutarrei garrasika, haserre aurpegi horiek, eta polizia judutarren kontra eta ez nazien kontra. Oraingoan ere, dena aldrebesa, legea zintzo-zintzo betetzen dutenak poliziaz inguratuta, eta naziak herrian nahi dutena egiten. Geroago konturatu nintzen emakume haiei falta zitzaizkien gizonezkoak lasai asko ibili zirela beraien desfilean, kale guztia hartzen, poliziarik gabe, herriaren jabe. Emek

plastikoei eusten eta harrak espazio publikoa hartzen. Dirudienez badago oraindik Hondarribian XV. mendean gelditzeko eta sexuen lan segregazioak mantentzeko gogo asko duen jendea. ■



Emek plastikoei eusten eta harrak espazio publikoa hartzen. Dirudienez badago oraindik Hondarribian XV. mendean gelditzeko eta sexuen lan segregazioak mantentzeko gogo asko duen jendea

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zinemaldia igaro da beste urte batez. Oraingoan Elias Querejeta –emandako sari berezi bat medio– entzun dut hizketan.

Hernani bere sorterriari eskaini dio berari emandakoa. Hernani, aberria omen du.

Sinetsi ere sinetsi egin diot, urrutiko intxaurrenen antzera. Aberritik at eman du ia bizi osoa, Kaliforniara joandakoak legez, honek ere lanak behartuta. Futbolari fina, Donostiatik Madrilerara egin zuen *amerikeen* bila eta zinemagintza aurkitu zuen. Espainiako zinema ekoizleen artean, podiumeko puntan dago. Eta harro agertu du bere burua hernaniar, bertako abertzale. Eduardo Chilli-

Donostiako

da du aberkide, hau ere artista, bertakoa, donostiartua. Futbolaria izana hau ere. Eta futbola ogibidea duen beste aberkide bat ere badute, nahiz eta hau artegintzan aritu ez den.

Espainolek bortxaz desagerrarazitako bertako *Egineko* kazetari izana, aberritik at dabil bizibidean Gipuzkoako hedabide azkarrenetako maisu. Tito esaten diote. Baditunik lagunak Hernanin, minak aberria hizkuntza dutenak bertan eta kanpoan. Euskal Herrikoak. Ez dira hiru hauen aberkide, ez dira artistak edo kazetari famatuak, ez dira hedabideetan agertzen. Eta Hernanin ikusi ditzakezue zero zabor tonelada zerbitzu. Hauei zor da Hernani den bezalakoa izatea. ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Musuari jarriak



GALDER IZAGIRRE/XDZ

I

Bi gazte dira seigarren zitan,
zalantzaren abusua;
betiko laku bera aurrean,
hari so geldi pausua:
“Atera nahi al duzu nirekin?”
dar-dar batean pultsua,
lotsaz burua behera eta
bihotzetik gertu sua,
erantzunik ez, baina jaso du
lehendabiziko musua.

II

Bikote bera, lau urte barru
paseatzera joana,
eskutik heldu eta esaten
dio pixkana-pixkana:
“Nik maite zaitut baina badago
ahots bat mintzo zaidana,
‘gaztea zara, aprobeztatu!’
errepikatzen didana...
Ezingo zaitut sekula ahaztu,
tori musu bat laztana”.

III

Gabon gaua da, afalaurrea,
nahiko pozik dirudizu,
“a ze nikia! Ta bizar hori?”
adarra jotzen beti zu,
besoak goian, gorroto duzun
izeba etortzen zaizu,
denen aurrean “kaixo politta,
bi musu” esaten dizu,
baina zuk eman baino gehiago
berak ematen dizkizu.

IV

Zazpi t’erdiak, eliza lepo,
isiltasuna parte da;
pinuzko kaxa, kandela zuri,
txaketa beltz, hil kapera.
Ilaran zoaz alargunari
doluminak ematera;
aurrean duzu, bi musu eta
malko batekin batera,
zerbait esaten saiatu zara
baina ez zaizu atera.

V

Musikak bum-bum, fokuek dir-dir,
gaua bukatzen hasi da,
barra ertzean bi gorputzak bat,
zerbitzaria begira;
musu elkarri: bat, bi, hiru, lau,
eta eskuak gerrira...
Hozka elkarri: lau, bost, sei, zazpi,
eskuak gerri azpira...
Animaliak ematen dute
baina gizakiak dira.

VI

Musu bat haizez jaso daiteke
edo gutunez bidali,
musu bat uka daiteke edo
jasotakoa itzuli,
haserraldi bat piztu dezake
edo piztua itzali,
bi musu eta agur bat edo
musu bat eta bi lili,
zuretzat ere horixe daukat:
musu bat, ongi ibili!



DOINUA: Azken arnasa eman nahi nuke.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Musika

Estankona: gardentasunaren magia

Abizenarekin sinatu du Borja Estankonak bakarka atera duen lehen diskoa. Arean taldeko ahots eta gitarra-jotzaile ohiak ondo umotutako hamar pop-rock pieza ekarri ditu eta ez dira azkenak izango, dagoeneko poltsa bete kanta berri zuzenean probatzen ari baita. Horien berri ordea, izango dugu aurrerago; oraingoz, aurten Baga Bigarekin atera duen diskoaz jardun da gurekin.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Jaime Gartzia

Areanen oso diferentea da proposamen hau baina, *Beste zerbait* kantak badu zure aurreko taldearen arrastoren bat: garapen luzea, esperimentaziorako joera...

Egia esan garai hartan konposatua da. Hura izan zen musika egiten ikasteko nire eskola; hortik nator, eraginak hor daude eta lan egiteko modu horiek ikasi nituen. Gaur egun

beste soinu batekin ari naizela uste dut, dena den: kanta gehienek garapen laburragoa dute eta garai hartan entzuten nuen musika ez dut entzuten, beste sormen egoera batean nago.

Kanta gardenagoak dira bai, pop kutsukoagoak. Bakarka hasi nintzenetik bilatzen aritu naiz gardentasun hori, abestia entzuten duzunean



argi ulertzea nolakoa den eta hor egon dadila nik aurkitu nahiko nukeen magia hori. Musika entzuten dudanean askotan konturatzen naiz badaudela abesti batzuk erraz-erraz sartzen zaizkizunak; bukatzen direnean ez zaituzte eremu arraroetara eramane, hau da, abesti familiarra iruditu zaizu, baina badakizu inoiz ez duzula entzun. Hori iruditzen zait magikoa. Ze, musika “pertsonala” dela esaten dugunean, askotan –eta ez dakit zergatik– ulertzen dugu musika arraroa izan behar duela, edo iluna izan behar duela, edo zoroarena egiten zabilatzala... Eta ni ez nago batere ados: iruditzen zait lan pertsonala izan daitekeela musika oso argia, lasaitasuneko egoera batetik sortzen dena eta konturatu gabe bihotza pozten dizuna, sakon arnasarazten dizuna.

Entzunaldiekin irabazten duen disko horietakoa dela uste dut.

Lagunen batek esan dit, lehenengoan bi edo hiru gustatu zaizkiola eta apurka-apurka hartu diola gustua disko osoari. Eta hori da bilatzen nabilena, nik neuk ere, nire abestiak entzuten ditudanean, gustatzen zait asko entzun arren ez asperetzea. Egile bezala askotan entzun behar izaten ditut nire abestiak eta gustatzen zait beti berri iruditzea.

Pop-rock oinarria izanda ere, bestelako eraginak bilatu dituzula esango nuke...

Bai, adibidez *Encendida y feliz*, diskoko bigarren abestia, Granadan (Espainia) bukatu nuen eta badauka folk eragina, flamenkoarena, horregatik dago ziurrenik gaztelaniaz eginda; *Narrasti magikoa* rock klasikoaren formatatik urruntzen da... Horiek biak dira, batez ere, pop-rocketik gehien urruntzen direnak... eta *Hor leku bat* kanta, post-rock ukitua daukana.

Ur horretatik Itoiz ekarri dit gogora, zer iruditzen?

Esan didate eragin hori daukala, baita Police taldearena ere. Guztiz ados nago, abesti hori da agian diskoko poperoena: alaia da, garbia da, hitzak ere betiko gaztetasunaren aldarrikapena-edo dira... Jotzen duzunean halako egoera alai batean sartzen zaitu.

Kanta batzuek esanahi argia dute, baina beste batzuetan irekiago utzi duzu interpretazioa...

Uste dut badirela bi joera nire idazteko eran eta biek jotzen dut aurrera. Adibidez, *Ihesa* abestiaren kasuan argia da, narrazio osoak ideia bati buruz egiten du berba; eta uste dut

gauzak argi esanez sor dezakezula sentsazio konkretu bat, oso ondo dago. Baina beste batzuetan, agian hitzak egiten beranduago hasi zarela, edo ez duzulako momentua aurkitu, beste gauza batzuei hasten zara jaramon egiten: hitzei, hitzen sonoritateari... Eta joera apur bat surrealistagoa hartzen duzu. Biak gustatzen zaizkit, egia esan: Antonio Vega edo Neil Young bera... aurrekoan entzuten egon nintzen eta abesti batzuetan esaldi bakoitza bere airera doa, eta ukitzen naute pila bat. Beste batzuetan berriz, Ruper Ordorikaren argitasuna eskertzen da, horrek mahai gainean uzten duelako gauza batzuei buruz zer pentsatzen duzun.

Hitzekin ari garenez: Areanekin nabaritu duan beste diferentzietako bat hori da, lehen elipsirako joera handiagooa zenuela, letra labur-laburak egiteko; orain luzeago idatzi duzu behar bada...

Lehen beste era batera egiten nituen abestiak eta gaur egun, forma aldetik poperoagoak direnez, eskatzen du gauza gehiago esatea. Gainera garraiek paper garrantzitsua zeukaten Areanen kantetan, batez ere bigarren diskoan; eta garrasiz gauza gutxi esanda denbora tarte handia bete dezakezu. Baina bueno, hemen ere badaude letra laburrak: *Narrasti magikoa* edo *Encendida y feliz* bezalakoak baziren Areanen. Abesti luzeagoetan bai, jarri behar izan dut idazle lana egiten.

Ez da zuretzat oso urruneko ofizioa izan inoiz ezta? Bide batez, pasatzen dizkiezu letrak lagun idazleei, iritzia eman diezazuten?

Kantak egiten ari naizenean ez ditut erakusten, gustatu zaien jakiteko edo oniritziaren bila. Bai egin izan dut esaldi bat beste modu batera nola esaten den galdetu, edo hitz bat ondo esana dagoen... Baina idazleak gertu izatea beti izan da laguntza: anaiak [Igor Estandakona] liburu pila dauzka hemen eta horiek irakurri izan ditut, baita bere poesia ere.

Eta Zantzoa aldizkari literarioan ere parte hartu zenuen 1996tik 1998ra...

Garai hartan hasi nintzen ikusten buruan daukazun berbak jarri litezkeela paperean, argitaratu litezkeela, jendea gustatzen zaio... Errezitaldiak ematen genituen eta hor espermentatu nuen lehenbizikoz jendarean jotzea zer zen. Horrek, azkenean, ildo batean sartzen zaitu eta gero zuk jarraitu egiten duzu, baina inoiz ahaztu gabe horiek izan zirela lehen pausoak.

Areanen lehen diskoaz ari zela, *Rockdeluxe*ko kritikariak zera idatzi zuen: “*Non-dik zatoz?* kantan Borja Estankonak kantautore oso berezia ematen du”. Bakarkako diskoa publikatu duzun honetan, zer iruditzen “kantautore” etiketa hori?

Gogoratzen naiz kritika horretaz, guretzat sorbaldan emandako bultzada izan zen... eta orduan ere “kantautore” hitza irakurri nuenean ez zidan kontrako sentsaziorik eragin. Kantautore asko onak dira eta hala deitu izan zaie inolako arazo barik. Niri ere hala deitzen badi-date, ez daukat arazorik.

Dena den, adierazi izan duzu bazeneukala gogoak bakarka aritzeko. Taldeak asko lotzen du, ala zuk hartu gura zenuen ardurara gehiago?

Areanen lehen diskoko abesti bi neuk bakarrik jo nituen eta batera geunden bitartean ere kontzertu batzuk ematen nituen bakarrik, nireak sentitzen nituen Areanen kantekin eta nik bakarrik sortutakoekin. Zergatik? Ba askotan, tabernetan bateria ezin sartuz, arazoei ibiltzen ginelako eta nik ere gogoz egiten nituelako horrelako kontzertuak. Gero, taldea desegin zen, eta hortik dator gaur egungo hau: Arean taldean urteak eman genituen batera, lotura handiko gauza zen, eta apurtu zenean tarte luzea behar izan nuen ikusteko ni kapaz nintzela aurrera ateratzeko. Egia esan, ez nuen nire burua ikusten jende askorekin, proiektua taldekide bat gehiago bezala ulertuz.

Lema onena, norberarena.

Bai, nik atera nahi nuen aurrera, beti ere jendearekin: Jimmy Arrabit eta Itsaso Etxebesterekin nabil, bideoklipa ere egin du Maite Yurrebasok diskorako [*Hor leku bat* kantarekin; ikusi hemen: <http://youtu.be/8i-Cn8pGOWs>] eta esan dezakegu jende asko ibili dela proiektu honetan aportazioa egiten,



Jimmy Arrabit eta Itsaso Etxebeste izan ditu baterian eta baxuan Estankonak bakarkako lehen diskoan.

baina gidaritzaz nik daramat. Batez ere abestiak konposatzean nabaritzen da: kantak daukan egitura guztian buru-belarri egotean, amaituta dagoen arte. Lehen disko honetan anaiaren hitzekin abesti bat egin dut, *Idatzia ez dago ezer*, baina kontsideratzen dut bide honetan batez ere ni izango naizela letrak eta abestiak egingo dituen.

Diskoa maiatzean aurkeztu zenuen, nolako harrera izan du?

Jendeari gustatu zaio eta kontzertuetan abesti berri mordoa ere jotzen ari gara, erreperitorio erdia-edo.

Beraz, hurrengo urterako disko berria?

Hori da helburua, bai.

Produktibo zabilta!

(Kar, kar, kar) Beti gustatuko litzaiguke kanta gehiago egitea, konposatzen hastean inoiz ez dut sentsazioa izan oso produktiboa naizenik, baina irteten dira eta hori pozgarria da. ■





G.PUNTUA

www.gpuntua.com



2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

LASARTE-ORIA

2011-10-08 Herriko antzokia / 17:30

Bertsolariak:

UXUE ALBERDI, AINHOA AGIRREAZALDEGI, INAKI APALATEGI, AMAIA ITURRIOTZ, OIHANA IGUARAN, ANDONI OTAMENDI

IRUN

2011-10-09 Amaia antzokia / 17:30

Bertsolariak:

INAKI ZELAIA, ALAIA MARTIN, HARITZ CASABAL, URKO EGANA, MANEX MUJICA, ASIER SASIETA



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

ZAMA-ABERE ESKAERA	OSPETSUENA NILO IBAIA- RENA DA HEGAZTI HANDI	BADAUKA	LANDA, SALBU JOKAMOLDE	MAIZ, SARRITAN BARAZKI HOSTOTSUA	... MAIDEN, TALDE BRI- TAINIARRA JATORDUA	ESTATU- BATUAR PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA
		ARTOA LANDATU DEN SOROA EINSTEINIOA				
PERTSONAIA- REN DEITURA ARGIBIDE- ESKAERA			HAGA TONA			
				EGOKIAK EZ EME		
SASOIRA HELDU	DAGO PERTSONAIA- REN IZENA				NORI ATZIZKIA ETSAITASUNA	
		GARBI, APAIN		DUT, GIPUZKERAZ UZKERRA		ODOL AHULEZIA
ARDI, HITZ- ELKARKETAN OINARRIZKO EDARI						
	10 ERROMATAR ZENBAKIZ ATSEGIN			LANDARE MOTA AZTERKETA MOTA		
ATZIZKI TXIKIGARRIA TXAKOLINA EDATEN DEN TABERNA		HALA ERE TXAKUR	MANGA- NESOA ARRESKE	TENPERA- TURA ABIATZEN DA	EMAKUME IZENA SU, LAMA	
						MEGA ARTSENIKOA
ELUR- ERAUNTSI BIKI ARTIFIZIALA			OSAGARRI BOROA			
		TAMAINA HANDIKO HEGAZTIA				



DANI BLANCO

Kike Amonarizen umorea

Larruzko berokia

Emakume bat larruzko beroki eder eta ikusgarria jantzita ari da paseatzen Donostian. Berarekin gurutzatzen diren gehienek atzera bueltatzen dute burua, ezohiko berokiak erakarrita.

Antiguako tunele-
ra iritsi baino lehen,



ordea, bat garrasika
hasi zaio:

– Baina nola eraman
liteke jantzita beroki
hori? Ba al dakizu
zuk hori jantzita era-
mateko animalia
batek hil egin behar
izan duela?

– Bai, badakit... Nire
amaginarreba!

Soluzioa

	A	D	B	A	U	I	Y
E	S	K	E	A	R	T	A
	T	O	L	E	D	O	Z
K	O	N	T	S	U	L	A
		D	A			A	R
U	M	O				D	E
	A	R	T			P	U
U	R	X				A	S
	T	X	U	A	M	T	A
T	X	A	K	O	L	I	N
	E	L	U	R	T	E	O
K	L	O	N	A	B	A	T
						R	O
						S	A



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Liburuak

KRITIKA

Bränskintgo zubia

Helduen literatura

Gema Lasarte

GOIZALDE LANDABASOK hitzez eta Aritz Eigurenek marrazkiz eraiki berri dute Bränskint hiria: eleen eta irudien arteko solasaldian zabalduetako hiri zaharra. Hitzek esaten ez dutena irudiek diote eta irudiak antzu balira, biak batera eta uztarturik, ulerbide dirateke, izan ere, sortze lan hau marrazki eta letren arteko harmonian tenkatzen baita.

Hiri hotza irudikatu digute, itxaropen gorria sarbidean, kale elurtuetan putak, bortxaketak, eska-leak, bakardadea, zaborrak, heriotzak, hip-hop erritmoan drogak, zubigaineko eta zubipeko pertsonaiak. Eta haien arteko solasak, begiradak, miseriaren begirada lohi eta bihurriak. Paisaiak. Txuribeltzean atondutako paisaia elurtuak, hotzak lurrundutako hitzak.

Hasierako irudiak ere halaxe dira, hotzaren txuri grisak eta erdian gorria. Aurreratu ahala irudien puzzleak eta tonuak irekitzen dira eta tonuz aldatzen doaz kolorea hartzeraino. Marrazki festa horretan trazu oso finak gailentzen dira, minimalistak



Bränskint.
Goizalde Landabaso.
Txalaparta.
104 orrialde.
17,5 euro.

lirudikete, eta beste batzuk ordea orrialde osoa hariturik espazio hanpatuaren euskarri bilakatzen dira. Marrazkiak oso diferenteak dira, estiloz nahiz tonoz, hiriaren antolaketa honetan Aritz Eigurenek eskaini dizkigunak.

Landabasok mikroipuinak marraztu ditu, dosi txikietan irakurtzeko, hiria baldosaz baldosa egina dagoelako eta bizitza segundo bat baino ez delako. Bränskint oso gertu dagoen hiri sentitzen dugu, hotza eta bakarra, noraezean irudika dezakeguna. Liburuaren azalak berak aurreratzen digu poesiaz kargaturiko Carrefour edota Eroskiko karrotxoa, edozein eskalaren etxe edo aterpea izan litekeena. Etxe mugikorak harantz eta honantz dabilzanak, miseria bidaide. Bränskinten psikiatrek ez dakite zorionarekin zer egin. Baina hotzaren isotopia lagun, hiri honetan ere bada Eguzki amandrerik, nahiz eta 226 egun behar izan laino beltzen indarra gainditzeko.

Egin dugu Bränskinterako bidaia, hantxe gozatu dugu mikronarrazioen erritmo bizia, hantxe sumatu dugu hitzen eta irudien arteko ezkontzari darion poesia. Eta idazle eta irakurlearen artean marrazkilariak zubiak marraztu ditu. Eguraldi makurrarekin era konpultsiboan. Etxe aurreko zubia lehenengoa. Unibertsitatera bidean dagoena, azkena. Ikusleenganako zubirik, baina, ez du aurkitzen. Eta zuk, irakurle, topatu al duzu komunikazio ariketa honetan Bränskintik zureraino sartzen den zubi zuri-beltzik? ■



denboraldi berria 2011 / 2012

2011.10.07 **OSTIRALA**

17:30 Performance **Esther Ferrer**. Doako jarduera. Toki mugatua

2011.10.08 **LARUNBATA**

11:00 Erakusketak jendearentzako zabalik

12:00 **LAU MUGIMENDUTAN**. Esther Ferrer artistaren eta Rosa Olivares komisarioaren arteko elkarriketa

20:00 Eraskusketen inaugurazioa

LAU MUGIMENDUTAN. ESTHER FERRER

PAPEROPHANIES. JENNY MARKETOU. PRAXIS

EGONALDIAK. ARTIUM Bildumaren inguruko lehengoratze jarduerak

ARGIA BARRURA. CARMELO ORTIZ DE ELGEA, JOSÉ LUIS ZUMETA

22:00 Kontzertua **THE BRONTËS**. Doako jarduera. Toki mugatua

Artium

Vitoria-Gasteiz
www.artium.org

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Denbora vs. Kantuak.
Keu.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 40'06".
12 euro.

Kantak jaun eta jabe

ONDARROAKO musikari nekaezinak disko bikoitza kaleratu du, eta baliteke lerro hauek irakurri orduko beste lan berriren bat prestatzen aritzea, kostaldeko musikaria bera sorpresa kaxa da-eta. Bere ezkutari fidel Mikel Arakistain baxu jotzailea alboan –ia banaezinak dira eta ondorioz, kimika ikaragarria dute– sustrai amerikarrak eta euskaldunak dituen folka, popa barra-barra eta jazz giroak abestiaren aginduetara jarri ditu. Aginduetara

diot, hemen kanta bera delako jaun eta jabe, kanta xume baina egiazkoa, ia biluzia, bestelakorik gabe. Hitzetan Keuk idatzitako testuez gain, Mikel Etxaburuk, Aitor Goenagak eta Kirmen Uribek ere lagundu dute. Disko honekin batera Durangoko Plateruena Kafe Antzokian formatu berarekin grabatutako emanaldi dotorearen DVDa dakar opari.

www.myspace.com/keuagirretxea

Keu Agirretxea

«Musika niretzat sorpresa kutxa da: beti irrikaz zer agertuko»

Denbora vs. Kantuak. Hainbeste kanta buruan daukazula, sentsazioa duzu ezingo dituzula guztiak kanpora atera?

Inspirazioa den bitartean aprobeztatu egin behar da. Sentsazio berriak bilatzean ideia asko agertzen dira eta hortik abestiak sor daitezke. Idazterakoan diziplinarik ez dut, sekula ez dakidalako noiz etorriko den lehen ideia. Behin etorritz gero, lantzeari ekiten diot, jakina.

Lehenengo aldia da folkean, jazzean eta doinu beroetan hainbeste murgiltzen zarena?

2008an grabatu nuen lehen disko akustikoa. Buruan beti izan ditut ideiak, baina nire burua seguru ikusi nahi izan dut estilo konkretu batzuetako abestiak konposatzeko eta lan hori ondo egiteko. Sentsazio berriak dira eta benetan sentitu izan behar dituzu gozatzeko eta bestekin konpartitzeko.



Zure kantei beti dute berezko goxotasuna. Nekatu zinen iraganeko bortizkeriaz eta amorruaz?

Oraindik ez, baina oreka bilatzen dut. Orain adibidez, urtebete dararat Governors taldean zuzeneko bortitzak eskaintzen eta aldi berean Fignuh Experience proiektu akustikoarekin areto eta antzokietan justu

kontrakoa egiten, giro lasaia eta intentsitateak lantzen.

“Nik badut nire mundua”. Zer da musika zure bizitzan? Zertarako balio du?

Sorpresa kutxa bat, ilusioa sortzen dit eta poztu egiten nau. Txikia nintzenean “*Sobre sorpresa*” saltzen zuten dendan. Beti irrikaz, zer agertuko. Orain berdina da musikarekin, nolakoa izango da hurrengo abestia? Ikusleekin konektatuko dugu? Hau dena bizitzeak preziorik ez du. Konposizioa, taldeko bizitza, grabazioak, birak... Bizipoza.

“Erantzunik gabeko galderen bide luzean”. Abestiak idazteak erantzunik ematen dizkizu?

Ez, gogoratzen dit erantzunik beti ez direla agertzen, baina aurrera begiratu behar dugula. Bizitza azkar doa eta ezin dugu galdera guztien erantzunen zain egon. ■



Ezpalak

JON TORNER

40 kontzertu jasoko ditu Zuzen Zuzenean zirkuituak



ABIAN DA Jaurlaritzak eta Kultura Live areto pribatuak elkartek sustatutako Zuzen-zuzenean musika zirkuitua. Orotara 70 taldek –gehienak Euskal Herrikoak– baino gehiagok parte hartuko dute urtarrilaren 7ra arte iraungo duen hirugarren edizioan. 40

kontzertuk osatuko dute egitaraua. Aste honetan hiru egingo dira: hilaren 6an Sonic Trash plays New York City Hits eta Yellow Big Machines taldeek Bilboko Kafe Antzokian joko dute; 8an Abbey Road eta The Travessy Band-ek Bilboko Santana 27 aretoan; eta 9an Iñaki Salvadorrek Elgetako (Gipuzkoa) Espaloian. Zea Mays, Vendetta, Gatillazo, Ruper Ordorika, Gose eta Su Ta Gar taldeek parte hartuko dute zirkuituan, besteren artean.

1936ko gerra pairatu zuten emakumeen omenez

AHOTSAK.COM webguneak bildutako testigantzak abiapuntutzat hartuta sortu dute *Amantalen ahotsa* ikuskizuna. 1936gerra eta gerra ostea bizi izan zuten emakumeek kontatutakoak ditu ardatz musika, bertsoak, dantza eta antzerkia uztartuko dituen obra horrek. Besteak beste, Amaia Zubiria abeslariak, Oinkari dantza taldeak, Maialen Lujanbio bertsolariak eta Ainere Tolosa eta Sara Cozar aktoreek parte hartuko dute ikuskizunean. Urriaren 7an estreinatuko dute Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

Amale Arzelus (Donostia, 1924) euskaltzalea omen du du EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek hilaren 8an Mungian (Bizkaia), II. Antzerkizale Egunen, antzerkiaren inguruan egindako lanagatik. Hainbat ekitaldi izango da Mungian, tartean Gaitzerdi konpainiak Joseba Sarrionandiaren hitzetan oinarrituta prestatutako *Euria esan eta euria egin* obraren emanaldia. Egitarau osoa: www.antzerkizale.com.

Liburuklik webgunea sortu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, euskal liburutegi digitala biltzeko helburuarekin: 3.000 liburutik gora eta 350.000 irudi kontsulta daitezke bertan eta lehendik ere sarean ikusgai zeuden Eusko Legebiltzarreko eta Antso Jakituna liburutegiko hainbat funtsez gain, Loiolako Santutegiko ondare bibliografikoko euskarazko 325 lan sareratu dituzte, “bakarrak eta balio handikoak”. Bilduma hau Europeana sarean jarriko dute, Europako erakunde ugariren funts bibliografikoak jasotzen dituen ataria. Proiektuan 690.000 euro inbertituko ditu Jaurlaritzak. Helbidea: www.liburuklik.euskadi.net.

Anselm Kiefer

artista alemaniarren (Donaueschingen, 1945) *Zazpi jauregi zerutarren liburua* izeneko koa-droa Bilboko Arte Ederren Museoan izango da ikusgai 2012ko urtarrilaren 8ra bitartean.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Abarrak

UNAI BREA

Ukronia ukroniaren barruan = errealitatea?

The man in the high castle. Phillip K. Dick.
(Putnam, 1962). Hugo Sariaren irabazlea.

HAINBESTE GAUZA neukan leituta Phillip K. Dicken (1928-1982) obrari eta bizitzari buruz, *The man in the high castle* eleberraren erdira-edo ailegatu arte ez bainintzen ohartu bizitzan lehenbizikoz ari nintzela Dicken lan bat irakurtzen. Istorioaren konplexutasunak ukabilkada jo zidanean gertatu zen. Aurrez ikasitakoak ez nindukan prest egilearen jenialitate eta desoreka psikiko nahastea behar bezala digeritzeko.

Kritika, oro har, bat dator: hau da Chicagoko idazle emankorraren eleberririk onena. Are gehiago, ukronia generoaren aitzindaritzat joa izan da. Bigarren Mundu Gerraren garaileak Alemania eta Japonia izan ziren mundu bat aurkeztzen digu Dickek. AEBak, nobelaren gertakari guztien eszenatokia, hiru herrialdetan zatituta daude orain: mendebaldeko estatuak, Japoniaren menpe; ekialdekoak, nazien esku; eta erdian, Mendi Harritsuen Estatu autonomoak.

Egoera hori, baina, Dickek oso istorio konplexua, batzuetan ulertzeko gaitza, garatzeko erabili zuen eszenatokia baino ez da.

The man in the high castle-ko protagonista gehienek beste ukronia bat irakurri dute: *Otarraina pausatu egin da*. Bertan esaten da gerraren benetako irabazleak AEBak eta haren aliatuak izan zirela. Korapiloa are nahasiagoa da ordea: *Otarraina*-ren egileak —bera da gazteluko gizona— *I ching* izeneko testu txinatarra, orakulu bat azken batean, erabili du bere eleberria idazteko. Dickek zioen berak ere *I ching*-en agindupean ondu zuela *The man in the high castle*. Liburuaren amaiera harrigarria gustuko ez zuela ere esan zuen. Ez dizuet kontatuko, baina bai aztarna bat emango: Dickek uste zuen noizean behin elkartu egiten diren mundu paraleloz osatuta dagoela errealitatea. ■



publizitatea

40.000 ikasle ingurura heldu nahi da Helduen Euskalduntzearen 2011-2012 ikasturtean

Guztira 1.500 irakasle inguru ariko dira lanean 2011-2012 ikasturtean HABEk kudeatutako 105 euskaltegian. Matrikulazio epea itxi gabe dagoen arren, 40.000 ikasle inguru izatea espero du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak.

Euskararen normalizaziorako bidean Helduen Euskalduntzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu du **Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak**, eta horren baitan, euskaltegiek egiten duten lan itzela goraitu du. "Hurbiltasuna, profesionaltasuna eta aukera aniztasuna". Hiru hitz horiekin deskribatu du sailburuordeak euskaltegien —publikoen nahiz pribatuen— eguneroko jarduna: "Euskarari bultzada emateko euskaltegiek egiten duten lana ezinbestekoa eta goraitzeko modukoa da. Eskerrak, beraz, egunero euskaltegietan buru-belarri lanean ari zareten guztioi".

Auzmendik adierazi du euskaltegi publikoak nahiz pri-

batuak ezinbesteko bitartekariak direla euskararen normalizaziorako: "Hori hala, guk gure esku dagoen guztia egin dugu helduen euskalduntzeak arrakasta izan dezan beharrezko baliabideak euskaltegien esku jartzeko, eta aurrera begira ere horretan jarraituko dugu".

Horren erakusle dira aurreko euskaltegiak diruz laguntzera bideratutako kopuruak. Izan ere, diru-laguntzak ez dira murriztuko: 2011-2012ra begira Euskaltegientzat 31.450.000 euroko diru-laguntzak emango dira. "Horrek esan nahi du diru-laguntzei eustea lortu dugula. Krisi ekonomiko garaian eta alderdi guztietatik murrizketak datozenean gogor borrokatu behar izan dugu Euskaltegietara bideratutako diru-laguntzei eusteko. Baina helduen euskalduntzea guretzat izaera estrategikoa duen gaia da, eta, beraz, aurrera begira ere ildo beretik laguntzen jarraituko dugu", nabarmendu du Auzmendik.



MUNDUORO
euskaraz

Ihesi

Testua eta argazkiak:

IRATI SARASUA ARABOLAZA

Euskal Herria ezagutuz:
Usurbil (Gipuzkoa)



Eskulturak eta muralak historiaren kontalari

Artelanez herri baten historia eta gertakizunak irudikatzen dituzte, eta maiz apartak izaten dira eginbehar horretan. Usurbil bere historia inork baino hobeto kontatzen duten eskultura eta muralak lepo dago.

HERRIETAKO ALDE ZAHARRAK izaten dira herriaren aztarna eta ondarearen gotorlekuak. Usurbilgo erdigunea herriak historian zehar bizitakoa azaltzen duten eskultura eta muralak gainezka dago. Ibilbide labur eta laua eginda horiek guztiak ikusteko aukera dago kale, etorbide, plaza eta jolastokietan. 6.000

biztanle inguru dituen herri lasaian, Oria ibaiaren ibarrean, Donostiatik hamar kilometro ingurura, mendiz eta erreka inguratutako bizilekuan leku berezia dute artelan horiek guztiek. Herriarekin lotura duten edo izan duten artistek egindakoak dira eta herriaren errealitate eta historiaren adierazgarri bikainak dira.

Hiribildu tituluaren oroigarria

Alde zaharretik mendi alderantz eginda, ibar txiki bat zeharkatu ostean, paisaia paregabe eta lasaian dago kokatuta Kale Zahar auzoa, eta bertan, auzoaren erdigunean, Felix Aizpurua plazan, Usurbili hiribildu titulua emanaren seigarren mendeurrenaren oroigarria

Jose Luis Zumetak egindako murala, 2009tik Mikel Laboa izena duen plazaren alde batean.





Ezkerrean, Gotzon Huegunen *Sagardoaren Monumentua*. Eskuinean, zuhaitzaren adar korapilatuak adierazten dituen Alejandro Tapiaren eskultura, Aginaga auzoan.

dago albo batean. XII. mendez geroztik Usurbil Donostiako lurraldea izan zen, 1371n Enrike II.a erregeak Belmonte de Usurbil izenez hiribildu titulua ezarri zion arte. Plaza hori da 1971. urtetik gaur egun arte gertaera horren oroigarri, bertan baitago hiribildutza lortu zuela azaltzen duen eskultura. Artelanak gertakari hari buruzko esaldia darama marmolezko borobilaren erdian: “1371-1971, Ederra bada herriagatik hiltzea, zein ederrago herriarentzat bizi-tzea, herriagatik behar baita bizi, behar da irabazi”. Marmolezko oroigarriaren parean, plazaren erdi-erdian Laka eskultorearen monumentu bat dago. Pergaminoa irudikatu nahi duen kareharritzko zilindroa da. Bi alboetan ertzak zabalduta ditu, eta tamaina ezberdineko letraz ondorengo mezua azaldu nahi omen du: “Hiltzen den gudari bakoitzeko bi jaiotzen dira”.

Kaleberri, artelanez josita

Kaleberri auzoa da herriaren erdigunea, eta eskultura eta mural gehienek topalekua. Lau artelan bata bestetik gertu, bost metro inguruko tartearekin, aurki daitezke bertan, herriko eraikin garrantzitsuen artean kokatuta, herritarren ohiko bizilekuan. Herriko frontoiaren atzealdetik hasita artelanez betetako herria ikus daiteke. Atzealdeko horman bertan, 1973an

Jose Luis Zumeta herriko semeak egindako hamasei metroko zabale-
ra eta bederatzi metroko altuera duen mila koloreko zeramikazko mural abstraktua dago.

Zumetak berak diseinatutako plazari begira dago murala. Izenik gabeko plaza izan zen harik eta 2009an Mikel Laboa izena eman zitzaion arte, donostiar kantariak herriarekin izandako lotura estua gogoratu nahian. Iazko maiatzean, momentuz Usurbilera iritsi den azken eskultura paratu zuten bertan, izen ezin aproposagoarekin: *Ikimilikiliklik*. Juan Jose Aranguren da egilea, eta 27 lanen artetik aukeratu zuten berarena, Udalak lehiaketa antolatu zuen-eta eskulturarik onena hautatzeko.

Eskuinera eginez gero, kalearen erdian, *Udarregiren eskultura* parez pare aurkituko duzu: bertso-lariaren omenez Remigio Mendiburuk egindako lan abstraktua da, harrizko paralelepipedo baten gainean herritarrek agurtzeko prest. Frontoia gurutzatu bezain laster zeramikazko irudiz betetako jolas-tokia dago Askatasuna plazan. Plaza inguratzen, frontoian eta hari eusten dioten zutabeetan, kolore biziz Euskal Herriko ohiturak irudikatzen duten marrazkiak daude, jolastokia alaitzen eta goxatzen: Olentzero, sagardoa, pilotariak, mendizaleak... Denak Karlos Zabala *Arrastaluren* eskuek sortuak.

Herri Batasuna, ezabatutako murala

Askatasuna plazatik pittin bat beherantz jarraituta, Eguzkitzalde auzora iritsi baino lehenago, Alejandro Tapiaren zuzendaritzapean egindako murala dugu ikusgai. Desitxuratua, hori bai. 80ko hamarkadaren hasieran marraztu zuten murala, eta Herri Batasuna ditugai nahiz izenburua. 2009ko uztail-ean, bertan ageri ziren aurpegiak eta Herri Batasuna hitzak ezabatu zituen Ertzaintzak, eta halaxe dirau harrezkeroztik.

Eguzkitzaldeko plazaren erdian, herriaren ezaugarrietako baten omenezko eskultura aurkitu daiteke: Gotzon Huegun lasartearraren *Sagardoaren Monumentua*, botilatik basora edari preziatuaren erortzea erakusten duena.

Usurbilgo erdigunea artelanez josita dagoen arren, ez da herriko eskulturen zerrenda horiekin amaitzen. Zubietako sarreran Iñaki Olazabalek Oria ibaiaren omenez egindako oroigarria ikus daiteke batetik; bestetik, Usurbilgo erdigunea alde batera utzi eta Oriorantz bidea hartuta, Aginaga auzo lasaia-
ren erdian, frontoiaren albo batean Alejandro Tapiak egindako zuhaitzaren adar korapilatuak ageri dituen kareharritzko eskultura dago. Usurbil, bere buruaren museoarena egiten duen herria. ■




Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Einsteinen erlatibitatearen teoria ezbaian

“EZIN DA argiak hutsean daukan abiadura baino azkarrago joan”, adierazi zuen Albert Einsteinek erlatibitatearen teoria plazaratu zuenean. Adierazpen hori lege bilakatu zen eta egungo fisikaren funtsetako bat da.

Berriki, baina, Suitzako CERN eta Italiako Grand Sasso laborategiek elkarlanean egindako saiakeran, neutrinoek argia baino azkarrago bidaia dezaketela izan da emaitza. Zuhurtziaz hartu beharrekoa, beti ere.



WWW2.CNRS.FR

espazioan galtzen dira. Egindako saiakera, hain zuzen ere, Lurra zeharkatzen duten neutrino batzuen arrastoa segitzean oinarritu da; zehazki, lur azpitik joanda Suitzako CERNetik Italiako Grand Sassora dauden 730 kilometroak egiteko neutrinoek behar duten denbora fotoiek behar dutena baino txikiagoa dela neurtu dute.

60 nano-segundoko aldea dago neutrinoek eta fotoiek aipatutako distantzia betetzeko behar izan duten denboren artean. Inork argudiatu du neurgailuen zehaztasuna izan daitekeela diferentziaren erantzulea, baina gailu berberekin neurtu dira batzuen eta besteen abiadurak... Adi jarraituko diogu gai honi.



Urratsak birziklapenean

BIRZIKLAPENAREN KULTURA jendartearen alor guztietan sartu da, edo sartu nahian dabil. Teknologian ere gero eta ugariagoak dira hondakinei ematen zaizkien irtenbideak.

Hondakin industrialak izaten dira birziklatzeko zailenak. Ildo horretan, aipagarria da Paketatze, Garraio eta Logistikarako Institutu Teknologiko espainiarrak, ITENEk (www.itene.com), Zaragozan egin berri den Expo-Recicla azokan aurkeztutakoa. Sailkatzeko zailak diren hondakin industrialetatik material berriak sortu dituzte, hala nola oholak, isolatzaile akustikoak eta erreagaiak lortzeko osagarriak.



Globulu zurien zahartzarora atzeratzen

Londresko University College-an, Arne Akbar biologoak zuzentzen duen lan-taldeak globulu zurien zahartzarora moteltzeko gakoak topatu ditu sistema immunitarioan. Hala, oso bide interesgarria aurkitu dute etorkizunean gorputz osoaren zahartzarora moteltzen saiatzeko.

<http://ttiki.com/31438> (Gaztelaniaz)

Bakterioak bakterioen barnean

Arizonako Unibertsitateko (AEB) John McCutcheon ikerlariak aurkitutako intsektu batean, barruan beste bakterio batzuk dauzkaten bakterioak daude. Guzti-guztiak sinbiosian bizi dira, ikertzaileak behatu ahal izan duenez.

<http://ttiki.com/31439> (Gaztelaniaz)

Artikoko izotzaren urtea, errekorretik hurbil

Neurketak egiten direnez geroztik 2007ko irailean gertatu zen Artikoko itsaso izotzuak inoiz izan duen urterik handiena; 1980ko hamarkada hasieran izotzak estaltzen zituen zortzi milioi kilometro koadroetatik lau milioi besterik ez zeuden orduko hartan. Aurretik Envisat sateliteak bidalitako datuen arabera ez da 2007ko maila lortuko, baina oso hurbilekoa izango da.

<http://ttiki.com/31440> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kolore festa

EZ DA HAINBESTE IDI IZANGO Herbehere osoetan, baina 6.000 aldaeratik gora dituzte idi-bihotzetan (*Tulipa sp.*). Han dago han, kolore festa, idi-bihotzen mundua. Zenbat mundu!

Hango negozio sarea ehunka urtetan ehuntzeko gaia Kurdistan aldetik ekarri, Turkian irun eta Istanbuldik barrena eramandako motak ziren. Idi-bihotz naturalak ondu eta hibridatuz gaurko bariedade edo aldaera aukera izateko bideari ekin zitzaion, eta ez da egundo amaitu. Milaka aldaera erregistratuta edo bidean dago; etengabe sortuz eta, sartu edo atera, patente-etxetako atarietan. Adibidez, hona Japonian egindako "Arisa" aldaeraren historia. Idi-bihotz hau "On Kixote" eta "Ben van Zanten" aldaeren arteko hibridazioetik jaioa da. 1979an bien nahasketaren 955 hazi ale erein zituzten. Sei urtetan landu ondoren, landatzeko errazak, emaileak eta gaitzei kementsu aurre egiten zieten zortzi mota aukeratu zituzten. 1999an erregistroan onartzeko eskaera egin eta behar adina aztertu ondoren 2002an ametitu zuten. Noiznahi topatuko duzu bere aietan erostgai, loreak ertzetan mendela arrosa duten ardo koloreko petaloak ditu.



EDEBOCK

Idi-bihotz honek petaloaren ertz-ertz du kolore desberdin batekoa, baina ia-ia nahi ahalako nahasketak duena topa daiteke. Asko direnez, haien nahasketatik etengabe ezezagun gehiago datoz. Adibidez, petaloen kolore nagusia beheko barrenetik datorkion beste kolore bateko gar antzeko batekin "zikindua" dutenak. Horiei, deigarri, bolada ez zaie amaitzen. Ederki kosta zen, bada, zikintze berexi erakargarri

hori nola demontre egiten zen asmatzea. Birus batek eragiten du, I-BMB edo Idi-bihotzaren mosaikoren birusa denak. Birus hori zorriek, zizta hemen zizta han, hedatzen dute. Kolore garbiko lorea eman duenak hurrengo urtean nahastutakoa azal dezake. Nahasketarik gabeko motak mantendu nahi dituzten muintegietan-eta, zikindu horiek urrutit jartzen dituzte, kutsadura

saihestu eta ahal den neurrian eragozteko. Zuriek eta horiek ez dute kolore aldaketa hori agertzen.

Gaur egun, hala ere, lorezaleen lanetik dator hone-lako idi-bihotz xeblebre asko. Eguna joan eta eguna etorri, antzeko makina bat historia idazten ari da. Ez gara, nolanahi ere, garai batean bezala, lore horiekin erotzen.



inguru
ABENTURA.COM

info@inguruabentura.com - 635 748 948

Descenso de Cañones, Espeleología, Puenting, Multiaventuras, Despedidas de solter@ y mucho mas...

Arroila Jaitsierak, Espeleología, Zubi saltoa, Multiabenturak, Ezkon aurreko agurrak eta askoz gehiago...

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

San Francisco 1896, bidegorri eske



1896ko uztailaren 25ean milaka txirrindularik bizikletentzat bide egokiak aldarrikatzeko agerraldia egin zuten San Franciscon. Ezkerreko irudian, XIX. mendeko txirrindulari klub estatubatuar bateko kideak.

SAN FRANCISCO (AEB), 1896KO UZTAILAREN 25A. Milaka txirrindularik bi gurpileko garraiobidearen aldeko martxa egin zuten hiriko kaleetan, Good Roads (Bide Onak) mugimenduak antolatuta. Biharamunean *The San Francisco Call* egunkariak adierazi zuenez, 100.000 bizikletazale inguru bildu ziren, txirrindulariak nahiz oinezkoak kontuan hartuta.

Hamar bat urte lehenago, aurreko gurpil erraldoia zuen bizikleta arriskutsua baztertu eta tamaina bereko bi gurpileko bizikleta modernoa nagusitu zen. 1889an, gurpil pneumatikoak bizikletan ibiltzea are gehiago erraztu zuen. Hala, bizikleten salmenta eta erabilera izugarri hazi zen. Bizikletek AEBetako hainbat hiritako kaleak hartu eta berehala, erabilera muga-tzeko arauak sortu ziren: gehieneko abiadura, ordutegi bereziak... Baina baita muga horiei aurre egiteko mugimenduak ere. 1880an League of American Wheelmen delakoa sortu zen Rhode Islanden, eta txirrindulariak herrialde osoan biltzen eta antolatzen hasi ziren.

Ez da harritzekoa San Francisko mugimenduak Good Roads izena izatea, horixe baitzen hiriko txirrin-

dularien premia nagusia: bizikletentzako bide egokiak. San Franciscoko bide sarea hiriak 40.000 biztanle zituen planifikatu zuten, baina XIX. mendean amaieran 360.000 biztanleko metropolia zen. Ordura arte nagusiki tranbiak eta gurdiak zebiltzan kaleetan eta, horregatik, zorua lokatzez, galtzadarriz eta tranbiaren errailez josita zeuden. *The San Francisco Callek* zioen moduan, bizikleta aurrerabidea zen, eta hiriak bizimodu berrira egokitu behar ziren.

1896ko martxa hark berehalako erantzuna izan zuen: 1898an txirrindulariak Market Street zolatu berrian gora eta behera zebiltzan. 1899an 1.200.000 bizikleta saldu ziren AEBetan.

Hamar urte geroago, 1909an, 160.000 besterik ez ziren saldu. Bi gurpilak lau bihurtu ziren, petrolioak zangoen indarra ordezkatu zuen, eta kaleak auto pribatuen mesedetan zolatzaren hasi ziren.

1997ko uztailaren 26an, 101 urteren ondoren, txirrindulariek berriro hartu zuten Market Street eta, orduez geroztik, hilero egiten dute martxa, egunero egiteko aukera helburu.

Arrastoak

Age of Empires bideojokoa doan ipini dute sarean

AGE OF EMPIRES estrategia historikoari buruzko bideojokoa Interneten musu-truk deskargatzeko moduan ipini berri dute.

Bideojoko horren lehen bertsioa duela hamalau urte merkaturatu zuten, eta ordutik, milaka jokalaria gudueta borrokatu eta egurra nahiz urrea biltzen aritu dira herrixkak, gotorlekuak, hiriak eta inperioak eraikitze, beti ere historiako zibilizazio nagusietan girotuta.

Doako bertsioak lau zibilizazioen aritzeko aukera ematen die jokalariei (greziarra, egiptoarra, pertsiarra eta zelta), bakarka nahiz *online*, beste jokalaria batzuen aurka. Jokoa ageofempiresonline.com helbidean deskargatu daiteke PCrentzat.



Ezker abertzalearen legeztatzea

Bide guztiek daramate Konstituzio Auzitegira

Sortu alderdia legeztatzearen inguruko erabakia gero eta gertuago dago. Konstituzio Auzitegiari dokumentazio gehiago helarazi dio defentsak, tartean, Eduardo Vígala (Donostia, 1959) katedradunaren artikulua bat. Sortuk ez lukeela legal izateko arazorik izan behar azaldu digu.

URKO APAOLAZA

“ETA EXISTITU BITARTEAN, Sortuk ez luke legezko izan behar”. Hori esan zuen Cándido Conde-Pumpido Estatuko fiskal buruak. Ikasturte judiziala hasteko ekitaldian ahobizarririk gabe hitz egin zuen, baita alderik beligeranteena erakutsi ere. Konstituzio Auzitegiari bidalitako mezu gisa hartu zituzten askok hitzok.

Badirudi, Eugène Ionescoren antzerki obra absurduenaren “erri-nozeronte” bihurtuta amaituko duela Conde-Pumpidok bere mandatu: erasoan. Jada iragarri duenez, Zapateroren agintaldia amaitzean kargua utziko baitu. Orduan, Auzitegi Goreneko bere magistratu postura itzuli beharko luke, baina mihi gaiztoek diote PSOE eta PP akordiora irits litezkeela, zer eta Conde-Pumpido Konstituzio Auzitegiko epaile izan dadila proposatzeko.

Sortu azaroaren 20ko Espainiako hauteskundeetan egon ahal izateko, Konstituzio Auzitegiak urriaren 7a baino lehen eman beharko luke babes helegitearen inguruko erabakiren bat. Defentsak idatzi bat aurkeztu zion erabakia egun hori baino lehen har dezala eskatzeko. Bere esanetan, helegiteak “erabateko eraginkortasuna” izateko, Sortuk hauteskundeetan egoteko aukera guztiak zabalik eduki beharko lituzke, eta auzitegiak babes helegitea onartzerako alderdi berriak jadanik hauteskundeetan parte hartzerik izango ez balu “kaltea kon-




LUIS JAUREGALITZO / ARGAZKI PRESS

Iñigo Iruin eta Rufi Etxeberria, Sorturen estatutuen aurkezpenean.

ponezina” litzateke. Konstituzionalaren Bigarren Aretoko sei epaileek irailaren 26an egindako bileran ordean, ez zuten Sorturen auzia eztabaidatu, eta lerrook idazteko orduan ez dirudi epe barruan erabakirik hartuko dutenik. Ez dago araudirik horren inguruan, epaileek beren irizpideen arabera lehenetsi edo atzeratu ditzakete auziak, akordatu Kataluniako Estatut-aren kasuaz.

Ikuspegi estatikoa *versus* ezker abertzalearen pausoak

Conde-Pumpidok airatutako argudioa –ETA existitu bitartean Sortuk jai duela– Auzitegi Gorenean jada erabili zuen nolabait fiskaltzak, eta tribunalaren gehiengoak arrazoi eman zion: “Talde terrorista horiek existitzen diren bitartean (...) talde horiekiko erabateko deskonexioa erakutsi beharko dute lehen haiekin kolaboratu zuten pertsonak, nor-



TXETXU BERRUEZO / EL PAÍS



KONSTITUZIO AUZITEGIA

Ezkerrean Eduardo Virgala konstituzio zuzenbideko EHUKo katedraduna. Eskuinean, epaileak Konstituzio Auzitegiko plenoan.

malasunaz bizitza politikora itzuli nahi badute". Jakina den bezala, Auzitegi Gorenak frogatutzat eman zuen "deskonexio" hori ez zela egon Sorturen kasuan.

Horren harira, Konstituzio Auzitegiari dokumentazio gehiago helarazi diote Iñigo Iruin eta Adolfo Araiz Sorturen defentsarako abokatuak, tartean Eduardo Virgala irakasleak *Jueces para la Democracia* aldizkarian uztailen argitaratutako artikulubat: *Sortu, Bildu y la izquierda abertzale en los tribunales*.

Eduardo Virgala konstituzio zuzenbideko EHUKo katedraduna da eta alderdien legeztatze kontuetan aditua, ARGIAK galdera batzuk egin dizkio horren inguruan:

– Zure artikuluan diozu Auzitegi Gorenak ezker abertzalearen inguruko ikuspegi erabat estatikoa dela: "Izan zena horrela izan behar du betirako".

– Horrela da, bai Sorturen inguruko sententzian, bai Bildurenean ere. Lehenago Auzitegi Gorenak frogatu zuen ezker abertzalearen eta ETaren artean lotura zegoela, nire ustez ongi frogatu ere. Baina horrek ez du esan nahi beti horrela izan behar duenik. 2009ko amaieratik ezin da berdin izan. 2008ko edo aurreko balorazioekin geratzen bagara eta demostratuta dagoenak betirako balio badu, ezker abertzaleak ezingo du inoiz legala izan. Ni beti izan naiz Alderdien Legearen defendatzaile, baina esan izan dut

ezker abertzaleak indarkeriaren kontrako jarrera hartzen badu legala izan beharko lukeela; bada, momentu honetan pauso horiek ematen ari dira.

– Fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak euren idatzietan beste baldintza batzuk jarri dituzte orain: "Biktimen aitortza" eta ETari "desegiteko" eskaera.

– Desberdindu behar da alderdi etiko eta morala alderdi juridikotik. Ez da beharrezkoa ETaren aurreko jardura gaitzestea, juridikoki ezin zaie hori eskatu, ez estatutuetan, ezta Sortu osatzen duten pertsonen deklarazioetan ere. Biktimen aitortzaren inguruan berdin gertatzen da, ez dagokio legeri barkamen kontuetan sartzea. Bestalde, ETari desegiteko eskaerarena konplikatuagoa da: Norbait terrorismoaren biolentziatik aldentzen baldin bada, logikoa da hura desegiteko eskatzea. Baina edozein kasutan ere, Sorturen estatutuak nahiko argiak dira, ekintza terroristatik erabat bereizten delako eta isunak ere aurreikusten dituztelako afiliatuentzat.

Virgalak garrantzi handia eman dio Auzitegi Goreneko plenoan izandako boto partikularrari –hamasei magistratuetatik zazpik sinatua–, 2003an lehenengo ilegaltzazio sententzia eman zenetik ez baita inoiz halakorik gertatu eta katedradunaren esanetan "juridikoki oso ondo argumentatua" dagoelako. Izan ere, baieztapen sendoak

egiten dituzte bertan. Esaterako, Auzitegi Gorenak Sorturen inguruko bere autoan dio "erabat egiaztatuta" geratu dela, "froga ugariren bidez", Sortu ETak martxan jarritako "iruzur-estrategia baten konkrezioa" dela. Bada, boto partikularraren arabera balizko froga horiek "kontakizun" batekin ordezkatu dira, Sortu, ezker abertzaleko kideak eta ETA lotzen dituenak.

Bateragune ETA omen da, ergo...

Auzitegi Nazionalak ostikada galanta eman dio normalizazio politikoa-ri Bateragune auziarekin. Arnaldo Otegi, Rafa Díez, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta eta Sonia Jazintori kartzela zigor gogorra ezarri die ETako kide eta buruzagi izateagatik. Sententziak dio ETak agindu ziela pertsona horiei ezker abertzalean estrategia berria –soilik



politikoa— martxan jartzea, indar soberanisten metaketa lortzeko helburuz. Hau da, ETAk bere buruari agindu ziola armak uztea. Inñaki Gabilondok bere bideo-blogean ironiaz zioen epaiari jaramon eginenez gero “esperantzaturik egoteko” arrazoiak ditugula. Absurduaren teatroa, berriz ere.

Ibilbide laburra iragarri diote Auzitegi Nazionalaren epaiari, frogen ahultasunagatik baino, Angela Murillok epaimahaian egoteko erakutsitako egoskorkeriagatik. Muri-llok inpartzialtasun aurrekariak zituen Arnaldo Otegiarekiko *Gatza* auzia zela-eta. “Kutsadura” horrek aukera emango dio defentsari kasazio helegitean epaiaren baliogabetasuna eskatzeko. Baina sententzia irmoa ez den arren, Bateragune auziko epaiak nahikoa astia izango du hauteskunde aurreko giroa zertxobait nahasteko. Azken batean, Auzitegi Nazionalaren teoria errazari jarraiki, Sortu eta Bildu, ETA-ren estratejiaren emaitza baitira.

Eduardo Vírgalak baina, erabat ukatzen du juridikoki ondorioz ekar dezakeenik:

– Izango al du eraginik Bateragune-ko epaiak Sorturen inguruko azkeneko erabakian?

– Ez, bi jurisdikzio ezberdin dira. Auzitegi Nazionala zigor jurisdikzioan dago eta momentu historiko zehatz bateko gertaerak epaitu ditu, baloratu eta zigorra jarri du, nire ustez gehiegizkoa. Konstituzio Auzitegiak, aldiz, aztertu behar du Sorturen estatutuak aurkeztu dituztenek biolentziatik nahiko aldendurik ote dauden. Ez du zertan inolako eraginik eduki behar.

– Froga modura ere ez?

– Ez, ez. Nik dakidala Otegi ez dago Sorturen fundatzaileen artean eta ez du loturarik fundatzaileekin. Ezberdina da, jurisdikzioa ezberdina delako. Sorturen inguruko epaian ez luke inolako eraginik izan behar.

Inñigo Iruin abokatua ere opinio berekoa da. Juridikoki ezetz dio, baina bere ustez auzi hauek badituzte sakoneko ezaugarri komun batzuk: “Fiskalaren ekinbidea berdina da: ‘ETA atzean dagoela’, eta erabiltzen dituen elementuak ere berak dira, polizia konfiskatutako dokumentu batzuk” (*Gara*, 2011ko ekainaren 26a).

“2008ko edo aurreko balorazioekin geratzen bagara, eta horrek betirako balio badu, ekzer abertzaleak ezingo luke inoiz legala izan”

EDUARDO VÍRGALA

Dokumentu horien artean *Prozesu demokratikoa* izeneko dago, ustez 2010eko apirilean Arantza Zulueta abokatuaren bulegoan konfiskatutako txostena. Bai Bateragune auzian, bai Sortu eta Bildukoetan ere, fiskaltzak txosten hori erabili du, ETAk ekzer abertzalearen estrategia politiko berriaren gainera kontrola duela erakusteko. Indar soberanisten metaketa lortzeko ETAk jarritako gidalerroak omen dakartza, besteak beste EArekin aliantza bat egitea. Baina lehen urrats gisa ETA eta

Estatuaren arteko pakto bat aurreikusten du dokumentuak, eta bistan da horrelakorik ez dela gertatu. Hain zuzen, Konstituzio Auzitegiak Bildu legeztatzekeko sententzian garbi dio dokumentu horrek eta besteek ez dutela ezer frogatzen.

Amaieur eta inpugnazioaren itzala

Sortu A-20ko hauteskundeetan parte hartzeko epea kasik agorturik, begirada guztiak EA, Aralar, Alternatiba eta ekzer abertzaleak osatutako Amaieur koalizioaren gainean daude orain. Hauteskunde Lege berriak Espainiako Legebiltzarrean ordezkaritzarik ez duten alderdiei derrigor-tzen die firma bilketa egitera —hauteskunde erroldako %0,1 behar du izan, plataformei exijitzen zaiena baina hamar aldiz gutxiago—. Ez dirudi alde horretatik Amaiurrek arazorik izango duenik tribunaletan. Baina debekuaren itzala hor dago: “Elementu garrantzitsua izango da —dio Eduardo Vírgalak—, fiskal buruak, esaten dituen gauzak entzunda, bere mandatu gogor antzera amaitzen badu eta koalizioa inpugnatzen badu, azkenean Konstituzionalak berriz ere erabaki bat hartu behar du hauteskunde aurretik nahitaez, eta hori beste aurrekari bat izango litzateke Sorturen epairako”.

Oraingoz, Ministerio Fiskalak ohar bidez aitortu du, Konstituzio Auzitegiak Bilduren inguruan emandako sententziaren ondoren inpugnazioarako “tarte gutxi” dagoela; baina polizia eta guardia zibila “adi” egongo direla ere esan du. Goiz da jakiteko barruan duten errinozerontea esnatuko ote zaien. ■



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Finantza iruzur piramidalak

Nola atzeman iruzurrak eta tranpa-inbertsioak

Azken urteetan hainbat ekonomia eta finantza iruzur ezagun egin dira. Milaka pertsonari eragin diete, beren aurrezkiekin ezohiko interes altuak lortu nahi zituzten bezeroek. Azken garaietako iruzur hedatuena “piramidal” deritzona da. Ipar Amerikan Madoff auzia dugu, Espainiako Estatuan Fórum Filatélico eta Afinsa kasuak, eta Durangon ere izan da gisa horretako iruzurrik. Tranpa-inbertsioak detektatzen jakitea komeni da.

DANIEL UDALAITZ

FINANTZA IRUZUR ohikoena “iruzur piramidal” deritzona da azken urteotan. Iruzur piramidal ezagunena Madoff auzia izan da, munduko hainbat lekutako pertsona eta entitate askori eragin baitie. Bernard Madoff Nasdaq-eko presidente ohiak 40 urtez hainbat aberats eta entitateri iruzur egin zien, urteko %12ko interes tasa ikaragarria eskainiz. Iruzur piramidala ez bada ere, Ruiz Mateos sendiak saldu berri duen Nueva Rumasa pagakizun agirien auzia produktu arriskutsutzat jo daiteke, organismo arautzaileen, hala nola CNMVren (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala) eta Espainiako Bankuaren ikuskaritza saihesten baitute. Espainiako Estatuan, kasu berriagoak Fórum Filatélico eta Afinsa auziak izan dira. Horiek ere milaka euskal aurretaileri eragin diete. Bi entitateek errentagarritasun handiko filatelia zigiluetan inbertitzea eskaintzen zuten, urteko %6 eta %12 artean.

Baina iruzur piramidal hurbilena Durangoko 30 bat familiei eragin diena —eta oraindik eragiten diena— da. Iazko azaroan azaleratu zen. Inbertitutako batez besteko kopurua 300.000 eurokoa zen, %15eko interesa eskaini zieten, kontratuan %4 jarri arren. Kapitala urtebetean itzuliko zietela hitzeman arren, epea ez zuten bete. Joan den martxoan



Inbertitzaile zaharrenei edo gailurrean daudenei ordaintzeko, inbertitzaile berrien dirua erabiltzen da iruzur piramidalean.

epaileak Durangoko iruzurraren ustezko bi erantzuleen ondasunak bahitu zituen. Biak desagertuta daude, jakina.

Tranpa saihesteko neurriak

Testuinguru horretan, lakioan erortzea saihesteko, aipatutako iruzurretan eta antzekoetan ez erortzeko,

zenbait neurri aintzat hartzea komeni da. Agintaritzak kontrolatzen ez dituen inbertsio produktuen katalogoa zabala da eta apeuez beteta dago. Ikuskaritzarik ezak iruzurren edo gardenak ez diren jardueren haztegi bihurtzen du.

Lehen ezaugarri susmagarria errentagarritasun altua “berma-

Zer dira iruzur piramidalak?

Iruzur piramidalari eusteko, akziodunen edo inbertitzailen etengabeko fluxua ezinbestekoa da. Hona hemen, pausoz pauso, iruzur horrek egiten duen ibilbidea.

Lehena: itxuraz oso errentagarria den inbertsioak dira. Sozietate jakin batek inbertitzaileri errentagarritasun oso altuko bermea eskaintzen die. Durangoko iruzurrean (ikus testu nagusian) %15erainokoa zen, Forum Filatelico eta Afinsa auzietan urteko %6 eta %12 artekoa, eta Madoff auzian, %12 artekoa. Bigarrena: litekeena da ondasun ukigaietan inbertitzea eskaintzea, ondasun horien balioa asko handitzen baita. Bestalde, akziodunari edo inbertitzaileri dirua inbertsio funtsetan sartzeko eskaintza egin dakioke. Hirugarrena: akziodunen kopurua oso handia da,

inbertsioaren errentagarritasun altuak harrিত, inbertitzailerek zurrumurrua zabaltzen dute, eta horrek gero eta inbertitzaileri berri gehiago erakartzen ditu. Laugarrena: hala, apurka egitura piramidala eraikitzen doa. Inbertitzaileri zaharrenak gailurrean daude, eta akziodun berriek oinarria hartzen dute. Hortik datorkio izena iruzur horri. Bosgarrena: inbertitzaileri zaharrenei, gailurrean daudenei, ordaintzeko, iritsi diren azken inbertitzaileren dirua erabiltzen da. Seigarrena: noiz geratzen da iruzurra agerian? Arazoa inbertitzaileren zikloa eteten denean sortzen da, sozietateak ez baitu funtsik interesak jaso nahi dituztenei edo, besterik gabe, hasierako inbertsioa berreskuratu nahi dutenei ordaintzeko.

tzea” da. Horixe da bezeroak erakartzeko amu nagusia. Horrelako inbertsio ia guztiek merkatuko gainerako eskaintzek baino askoz etekin handiagoa dute. Bigarrenik, kontuz ibili behar da “itxurazko pagotxekin”. Askotan, produktu horiek aukera bakar modura merkaturatzen dituzte. Mahuka gisa aurkezteak arinegi kontratatzea dakar. Estrategia oso garbia da. Presa, gogoeta gutxiago eta, azkenik, arriskuak neurtzen ez dituen erosketa oldarkorra.

Hirugarrenik, ez gaitezen ahoz ahokoaz fida. Arauen zirrikituak baliatzen dituzten iruzurren batzuk piramide moduan egituratuta daude. Iruzur piramidal esaten zaie. Hau da, lehen inbertitzailerek gailurrean daude, eta gainerakoak, iritsi ahala, oinarrian kokatuz doaz. Lehenek hitzartutako etekinak lor ditzaten ezinbestekoa da bezero berriak sartzea, eta, horregatik, dei efektua sustatzea komeni zaie. Hala,

bezeroak erakartzea, hein batean, inbertitzaileren ardura da. Produktuaren bertuteak inguru hurbilean zabalduko dituzte.

**Durango 30 familia
inguru iruzur piramidal
baten biktima izan dira.**

**Inbertitutako batez
besteko kopurua 300.000
eurokoa da eta ustezko
iruzurgileak desagertuta
daude**

Laugarrenik, kontuz zigiluen, txanponen, bitxien eta halakoen eskaintzekin. Arazoak ikuskaritza ihes egiten dieten produktu gehienek helburua ondasun ukigaiak salerostea da. Akzioek, bonoek eta inbertsio funtsek balore merkatuan jarduten dute eta, beraz,

CNMVk horiei eragin dakiekeen gehiegikeriak kontrolatzen ditu. Gordailuak eta beste finantza eskaintza batzuk banku zentralen kontrolpean daude. Eredu horietan egiten diren inbertsioen arrakasta ezin da ziurtatu, baina arazotzaileek iruzurgileei ate asko ixten dizkiete.

Informazioa lortu

Azkenik, inbertsio proposamen bati erantzuteko neurri nabarmenena ahalik eta informazio gehien biltzea da. Produktuaren ezaugarrien berri izan behar da, zehazki zertan datzan jakin, letra txikiarekin esanahia argitu. Inbertsioa eskaintzen duen enpresa bitartekaria existitzen dela egiaztatu eta zer egoeratan dagoen jakin behar da. Merkataritza erregistrora jotzea eta enpresaren urteko balantzeak egiaztatzea komeni da. Eta amaitzeko, itxurez ez fida, esaterak dioen moduan, “beltz guztiak ez baitira ikatzak”. ■



Ondarre
BASERRIA

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hispanavista.com • www.nekatur.net/ondarre



Edadetuak hizketan

Urepeleko ahotsak etxe xokotik

Xan Aire urepeldarrak ahotsak.com egitasmoa adinekoen kontakizunak jasotzeko kolaboratzaile bila zebilela jakin zuen. Ipar Euskal Herrirako eskakizunik ez zegoen, baina Airek bere burua aurkeztu zuen. Bere sorterriko edadetuak elkarriketatu ditu.

AITOR ZABALETA

ETXE XOKOAN ISILIK, istorio izugarrien jagoleak topatu ditu Xan Airek. Zahartuta ezagutu dituen bizilagunak, noiz edo noiz gazte izan direla konturatu da. Urepeldar horien ahotsak eta doinuak gorde ditu, “euskara agian ez da galduko, baina bai haiek duten mintzatzeko moldea, esaerak...”. Zibilizazio aldaketaren eragina dela dio Airek, ahozkotasunetik idatzizkora saltoa.

Auzokideak entzunda, hizkerak izan dituen eraldaketetatik at edo horrekin batera, Urepeleko (Nafarroa Beherea) bizimodu aldaketa izan da Aire gehien harritu duena. Hobeto bizi garela sinistarazi nahi izan digutela dio, baina gure burua zorigaitzera kondenatu dugula uste du. Edadetuen ondoko esaldiek eragin diote halako hausnarketa: “Gaur egungo miseria dirua da”; “Lehen astia bagenuen, orain hori ere galdu dugu”; “Ez genuen dirurik, baina ez dugu gosea ezagutu”; “Ameriketan izan nintzen diru bila eta miseriarekin itzuli nintzen”; “Autoak zauritu zuen lehenik Urepele eta telebistak hil”. Laborariak dira elkarriketatu-tako gehienak, inondik ere ezjakinak, mikrofonoetatik harago zabaldu beharreko mezua dela uste du Airek. “Gehiagotan hitz egin behar-ko genuke jende zaharrarekin, entzun esateko dutena. Ez zuten dirurik, ez zuten telebistarik, baina denbora zuten. Ez zen espiritu bera, zoriontsu ziren”.



XAN AIRE



Ezker-eskuin, goian: Txomin Arrambide eta Babet Salaberri. Ezker-eskuin, behean: Angele Harriet eta Maddi Arrambel urepeldarrak. Xan Airek elkarriketatu ditu laurak. Sarri gerra kontuak zituzten berriketan hasteko aitzakia.

Liburuan ere bai

Gerra garaiko kontuak, naziekin izandako hartu-emanak; bizimodu eta balore aldaketa; Ameriketarako bidaian jarritako esperantza, eta hainbatek han ezagutu

zuten bakardade eta miserien inguruko kontuak aditu ditu Airek.

Kontakizun horiek guztiak ezagutarazteko beharra sentitu eta liburua idaztea erabaki zuen

Airek, “liburuak bideoak ez duen goxotasuna duelako”.

Bigarren Mundu Gerrako gertakariak izan dira usu elkarrizketari hasiera emateko aitzakia. Horrela, hizlari bakoitzaren hizkera gorde-tzeaz gain, historia zatiak jasotzeko aukera izan da. Gerraz hitz egin nahi ez zuenari edo deus oroitzen ez zuenari, lanaz galde egin zaio.

Euskara galdu, Urepele hustu

Harremana zein den ez badaki ere, eta inolako teoriarik frogatzerik ez badu ere, urepeldarraren ustez kontua da herria jendez hustu dela euskara joan den bezala: “Euskararen atxikimendurik ez baduzu, Urepele bezalako herri batentzat atxikimendurik ez duzu”. Are gehiago, bere belaunaldia –1984an jaioa da– osoki euskara ulertzen duen azkena dela berresten du, “ez diot hitz egin, ulertu baizik”. Elkarrizketatutako edadetuak euskaldun sentitzen ziren, baina hizkuntzaren galerarekin batera, frantses sentimendua handiagotuz doa.

Xan Aireren ustez, kontua da herria jendez hustu dela euskara joan den bezala

Airek, haren inguruan gertatzen ari den errealitate konplexu batek utzi dituen osagai askoren ondorioa dela defendatzen du. Alde batetik, elkarrizketatuek kontatutako iragan beltzaren oinordekotza dela pentsatzen du. Eskolan euskara debekatu-ta zegoen. Isekek, lotsek eta gaine-rakoek arrasto handia utzi zuten jendearen oroitzapenean, beren hizkuntzari bizkarra emateraino. “Eskolan ikasi zuten euskara gaizki zela, horrek etxeko transmisioa galtzea ekarri du”. Modernitatearen aldarriak, bestetik, biziki eragin dio Nafarroa Behereko herriari, zauri



Xan Airek herriko adinekoei egindako elkarrizketen grabazioak ahotsak.com egitasmora bideratu ditu eta liburua argitaratuko du.

zabala irekiz: “Modernitatearen ize-nean jada ezin duzu euskaraz hitz egin, ezta herri txikian bizi. Hori da espiritu berria”. Hori iritsarazi diote bederen elkarrizketatuek, “ez dute goserik ezagutu, baina betiko bizi-modua galdu dute, nortasuna galdu du Urepelek, euskararekin batera nortasuna galdu dugu”.

Frantsesez ez zekitenak

“Xterbegi ez da Frantziako herri pobre bat bezik. Eskuaraz arzea debekatu daute eskolan, eta gero hek bezala bizitzera behartu giuzte. Gure nortasuna hartu daute, bainan guk ere galdu dugu. Herriaren atxikimendurik ez dugu transmititu. Hizkuntzarekin batean airatzera utzi dugu. Errorik gabe, nundik zabalduko da arbola sendoa? Gure herria guhauk lurperatu dugu, kanpokoeri eta bazterrer hetsiz”. Xan Airek idatzitako *Petrola Xterbegin* izeneko satira sozialaren pasarteak aurrekoa. “Urepele den bezala erakutsi nahi nuen, politika surrealista hau salatu, jendea ispilu aurrean jarri eta

zertan ari garen erakutsi behingoz esnatu gaitezen”. Kritikak jaso baditu ere, aitortu du ez duela mendeku gisa edo inoren aurka egiteko idatzi, errealitatea salatze-ko baizik.

Gaur egungoa nahi bezalakoa ez bada ere, esperantza eta lanerako gogoia baditu: “Zaharrek eman didate indarra, gu baino askoz okerrago egon ziren, eta hemen daude”. Elkarrizketatutako andre batek gaztea balitz borrokan ibiliko zela aitortu zion, egoera sozialaren aurka, errealitate aldrebes honen aurka; gorputz kamustu horien azpian, sarri, espiritu gazteak gordetzen baitira. Hala ere, biziki beltz ikusten dute etorkizuna, jada jendea ez dutelako ikusten, ez direlako kalean jendearekin mintzatzen. Garrantzi handia zuen horrek beraientzat. “Erdi Arotik modernitatez zuzenean salto egin behar izan dute askok”. Badira elkarrizketatuen artean frantsesez ez dakitenak edo oso gutxi dakitenak, egungo gazteek aldiz, ez dute euskaraz ulertzen.

Xan Aireren ustez, gaur egun elkarrekin euskaraz hitz egiteko lekuak eta erremintak sortu behar dira. Badaki zertaz ari den, Euskal eta Frantses Filologian lizentziatua Seaskak eta AEK-k sortutako *Euskaraz bizi* egitasmoaren koordinatzailea da. Gogoetan segitzen du: “Gaur egun jendea ez da kalean elkarrekin gurutzatzen, baina erakutsiz gero duela urte batzuk bizilagunen arteko harremana nolakoa zen, elkarrekiko loturak nolako garrantzia zuen” errealitate oparoa-gorako ateak irekiko lituzkeelakoan dago.

Urepeleko filologoaren iritziz, ezjakintasuna da sarri gaitz askoren oinarria, eta jakintza zein ezagutza ukenduak; bai euskararen-tzat, baita bizitzea egokitu zaigun bizimoduarentzat. ■



Babeslea: **HABE**

HABE

Helduen Alfabetatze
Berreuskalduntze Erakundea

105 eskalategi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduoro
euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net

Uemak zuzendaritza berria du



UDALERRI Euskaldunen Mankomunitateak zuzendaritza berritu zuen joan den larunbatean, urriaren 1ean. Maren Belastegi izango da lehendakari, eta kide berriak ondokoak dira (argazkian atzeko lerroan ezkerretik eskuinera): Mikel Ansotegi (Aulesti, Bildu), Jon Abril (Bera, Aralar), Asier

Mujika (Arama, independentea) eta Lexuri Arrizabalaga (Gatika, EAJ). Aurreko lerroan: Oibar Egia (Gizaburuaga, independentea), Iñaki Agirrezabalaga (Zumaia, Bildu), Maren Belastegi (Bergara, Bildu), Miren Irigoien (Oiartzun, Bildu) eta Josetxo Mendizabal (Zestoa, EAJ).

Katalunian lau filmetatik bat izango da katalanez

GENERALITATEAK hitzarmena sinatu du AEBetako major-ekin eta horri esker 2014tik aurrera Katalunian zine aretoetan emango diren lau pelikuletatik bat katalanera bikoiztuta egongo da. 2010ean Zinema katalanaren Legea sartu zen indarrean, eta horren

arabera, proiektatutako filmen erdiak katalanera bikoiztuta edo katalanezko azpтитuluekin eskainiko ziren zine aretoetan. Zinema industrian ezinegon sortu zuen legeak. Generalitateak esan du banatzaileen esku jarriko dituela 1,4 milioi euro bikoizketak eta azpтитulu lanak egiteko.

Eskola Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren dekretua onartu du

AZTERKETA berezirik egin gabe, ikasleek hainbat mailatako euskara agiriak lortzeko aukera izango dute. Horrela, Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzan irakasgaien erdia euskaraz egin eta euskara eta literatura gainditzen dutenek B1 maila eskuratuko dute. Batxilergoan eta Lanbide Heziketan gauza bera egiten dutenek B2 tituluaren baliokidea dena jasoko dute. Unibertsitatean, C2 (Administrazioko PL4ren parekoa) eta C1 (EGArekin parekoa) mailak aitortuak izateko hainbat bide daude. C1 maila aitortuko zaie karrera euskaraz egin dutenei ala zati bat euskaraz egin eta euskara klase batzuk hartu dituztenei. C2 maila aitortuko zaie Euskal Filologia edo Itzulpen-gintza ikasi dutenei eta doktore tesia euskaraz egiten dutenei.

Youtube euskaraz



GOOGLE-EK 2006an erosi zuen bideoak online bistaratzen dituen webgunea. Joan den asteaz geroztik webgunea euskarara itzulita dago. Nabigatzailea euskaraz konfiguratuta izanez gero webguneak euskarazko azala erakusten du. Bestela, orrialdearen behealdean dauka hizkuntza hautatzeko aukera. 51 hizkuntzatan erabil daiteke Youtube.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Industria farmazeutikoa eta kapitalismoa

"Giza osasunaz egiten den ikerketa ezin da soilik errentagarritasun ekonomikoaren menpe egon. Enpresaren dibidenduentzat ona dena, ez da beti pertsonentzat ona izaten (...) Industria farmazeutikoak kapitalaren merkatua zerbitzatu nahi du (...) Badakit funts pribatuaren menpe dauden ikerlariak gaixotasunekin amaitzeko botika deskubritu dezaketela (...) Baina ikertzeari utzi diote ez dutelako inor sendatzeko interesik, haren bizkar dirua egiteko baizik; hala, ikerketa hori tupustean desbideratzen da erabat sendatzen ez duten botikak aurkitzera. Gaixotasuna kroniko egiten duten botikak dira, hasieran hobekuntza nabaritu, baina ondoren, botika utziz gero hobekuntza hori desagertu egiten da (...) Ohikoa da farmazeutikek ikerketa lerro hori begiz jotzea, ez sendatzeko, baizik eta gaitza kroniko bihurtzeko; kronikotasuna eragiten duten botikak askoz errentagarriagoak direlako, erabat eta betiko sendatzen dutenak baino (...) Antibiotikoak ikertzeari utzi zaio oso eraginkorrak zirelako eta gaixoa guztiz sendatzen zutelako. Antibiotiko berriak garatu ez direnez, infekzioa sortzen duten mikroorganismoak erresistente bihurtu dira eta tuberkulosia berriz azaltzen ari da; iaz milioi bat lagun hil zuen (...) Erabat sendatzen duten botikak ez dira errentagarriak eta horregatik ez dira ikertzen".

Aurreko esaldiak Richard J. Roberts Medikuntzako Nobel saridunak esan zituen Kataluniako *La Vanguardia* egunkariak maiatzaren 25eko elkarrizketan. Bere iritziz, farmazeutikek botika sendagarriak blokatzen dituzte errentagarriak ez direlako, haien banaketa eragotziz. Nobel saridunak salatutako eskandalu oso larri honek, beste behin erakusten du kapitalismoa, kasu honetan industria farmazeutikoa, basatia eta hiltzailea dela.



Juan Mari Arregi

Bada mugimendua

BAKE PROZESUA geldi dagoela esan nuen joan den aste-ko kronikan, batez ere iragan hurbileko mugimenduei begira urrats aldebakarrekoak soilik antzematen zirelako. Baina ez, azken hamar egunetan gertatzen ari denak, hemen mugimendu zabala-
goa dagoela adierazten du. Dinamika biziena esparru batean gertatzen ari: EPPK-k Gernikako Akordioa sinatzea, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen (NEB) aurkezpena, ETAk talde honi emandako oniritzia, Ekinen desagerpena... Eta prozesu honetan ezker abertzaleak hasieratik hartu zuen aldebakarreko estrategiarekin, hori da logikoena eta hala izango da aurreantzean ere.

Oraingoan, baina, Jaurilaritzaren esparrutik ere izan da keinurik eta Lopez lehendakariak Eusko Legebiltzarrean egindako hitzaldian bada esperantzarako tarterik. Bakegintzari dagokionez, hiru mezu berri luzatu zituen: presoak hurbildu egin behar dira, legeak betetzen dituen legezkora izan behar du eta euskal gizartean elkarbizitza berri bat eraiki behar dugu guztion artean.

Jakina, gero Rubalcaba baldin badator esanez Lopezek espetxe politikaz esan duen horixe bera ari dela egiten gaur egun Espainiako Gobernua ba... Edo behin eta berriz garaile eta galtzaileen diskurtsoari haize ematen bazaio ba... Patxi Lopezek ekarpen honi jarri ahal izango zaizkio gura beste ñabardura, oraindik gainera ez da diskurtso horren aztarnarik gauzatu, baina norabide zuzenean doa eta hori da oraingoaz baloragarriena, batez ere orain arte geldikortasuna nagusi izan denean, edo zenbaitetan, Bateragune auziko

epaia adibide, atzera ere egin denean.


Lagungarri da, halaber, EAJk NEBri buruz egindako balorazio positiboa eta bakea eraikitzeko PPri berriz ere luzatutako eskaintza. Eta PPko Antonio Basagoiti bera ere, zenbaitetan, zuhurtasun handiaz ari da han-hemenka eskaintzen dituen elkarrizketetan, adibidez joan den igandeko El Correo-koan.

Nahi duenak beti pentsa dezake azaroaren 20ko hauteskundeetako akuilua dagoela bakearen aldeko lasterketa honetan. Baina ez ditugu alferrik iragan azken bi bake prozesuak —Lizarra-Garazikoa eta Loiola-koa— eta esperientzi horietan oinarrituta, bada arrazoirik pentsatzeko sukalde lan handia dagoela mugimendu hauen guztien atzean.

Kontua da, hauteskunde atarian edo ez, normalizazio politikoa eta elkarrizketa balore bihurtu direla Euskal Herrian, herritarrek ikusten dutela ur horietatik edanda bakea gertuago dagoela eta, beraz, inongo eragile politikok ez duela ubide horretatik kanpo geratu gura. Orain arte hauteskunde garaiek inoiz ez

dute lagundu negoziazio prozesurik, baina oraingoan akaso sustaizale ere izan daitezke, alderdiek ere argi ikusi dutelako herritarrek eremu horretan egindakoa saritu egiten dutela.

AMAIUR da ezkerreko esparru soberanistaren izena Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Geroa Bai Uxue Barkosen inguruan egituratu diren NaBaizaleena. Batera joanda, bi diputatu lor zitezkeen lekuan, bat eramango du Amaiurrek Nafarroan. Politikan sentsibiltate desberdinak izatea da logikoena eta interesgarriena; bakoitza bere eskaintzarekin. Baina hainbeste kalitate eta berrikuntzaren garaian, salbuespen gisa bada ere, komeni da balore horiek politikan ere astintzea. Egoera berriek apustu berriak eskaintzen dituzte eta, kasu honetan, Nafarroan bazen eskaintza bateratu bat luzatzeko baldintzarik. Une historikoak merezi zuen halakorik. Batek daki noiz errepikatuko den beste halako aukerarik.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



PELLO ZUBIRIA

Zeruan zero zabor, txatar koxkor batek mailatu ez zaitzan

Irailaren 23an gizakiak ekoiztutako satellite bat, sei tona txatar, 26 puskatan zatiturik itzuli zen Lurrera eta Ozeano Bare gainean barreiatu. Zatiotako bat kristauren bati gazta gainera erortzeko probabilitatea oso txikia omen zen, 3.200etik bakarra. Probabilitate txikia? Loteria egokitzeak askoz txikiagoa izanagatik jokatzen segitzen du.

GOI EGURATSA IKERTZEKO Satellitea (UARS ingelesezko sigletan) 14 urtez aritu zen bere lana xuxen burutzen, ondoren beste sei urtez Lurraren gainean alferrik jira eta bira ibiltzeko. Gizakien kontrolpetik aspaldi eskapu eginek, atmosferan sartu eta gehienik desegin egin zen marruskaduragatik, baina kiskali gabeko 26 bat pieza lurreraino iritsi ziren. Hobe itsasoraino esatea, Ozeano Bareko punturen batean hondoratu baitziren.

1991ean *Discovery* transbordadorearekin aireratutako hamar metroko tramankuluak ofizialki aztertu zuen Lurra inguruan daukan ozono geruza; horrez gain bestelako zein helburu zuen jakitea ez da erraza, tartean militarrek egonik. Erregaia kontatu gabe sei tona inguru pisatzen zuen satellitea garai-ko 750 milioi dolar kostatu zen. Guregandik 580 kilometrotara egon da geroztik orbitan.

Bitxikeria dirudien albiste gero eta sarriago errepikatzen da. Irailaren 23an erori bazen azkena, hurrengo urriaren bukaerarako iragartzen da, *Rosat* satellitea, unibertsoren kartografia egiten jardun omen duen teleskopio mugikorra. 2,4 tona pisatzen du, eta adituek uste dute horien erdia osatzen duten piezak iritsiko direla lurreraino. Norbait kaskezurrean kolpatze-

ko erori berriak baino aukerak are handiagoak dauzka *Rosat*ek, 2.000tik bat, NASAk onargarritzat jotzen duen 10.000tik batekoa baino askoz arriskutsuagoa da.

Gero eta ugariago itzuliko digu –itzuli esan behar, gizakiok bidalia da eta– txatarra espazioak. AEBetako *Union of Concerned Scientists* (Zientzialari Arduratsuen Elkarte) delakoak daukan *All Things Nuclear* blog oparoan Laura Gregok uztailen jorratu zuen espazioko zaborren gaia: “Espazioko txatarra: [urte batzuetako] aurrerapenaren ondoren, hamarkada tamalgarria”.

Ekaineko albiste ez oso zabaldu baten aipamenarekin hasten da Gregoren artikulua. Izan ere, ekainean ISS Nazioarteko Espazio Estazioko eskifaiak eskotilak itxi eta Soyuz kapsulan gorde behar izan zuen, ortzian barrena zebilen pusken bat haiengandik hurbil pasatze-koa zelako.

Puska txikiak dira horrelakoak, satellite eta koheteen osagaiak, baina sekulako abiaduran dabilta: segundoko 10, hau da, orduko 35.000 kilometroko txistuan, datorren gramo bateko piezatxoak orduko 100 kilometrokoan datorren 100 kiloko burdin batek adinako kaltea eragin dezake.

Ekainaren 28ko *New York Times*en Kenneth Chang-ek azaldu

Irudian Goi Eguratsa Ikertzeko Satellitea (ingelesez *Uper Atmosphere Research Satellite*, *UARS*) goragotik beste batek argazkian hartuta. 10 metro luze eta diametroa 4 metro, sei tona inguruko pisua egiten zuen. 1991ko irailean utzi zuen *Discovery* koheteak 600 kilometro inguruko altueran, Lurraren atmosfera ikertu zezan. Zehazkiago, UARSak lagundu behar zuen hobeto ezagutzen Lurretik 15 eta 100 km arteko atmosferan gertatzen dena: eguratsaren osaketa eta kanpoko indarren, esaterako Eguzkiaren erradiazioen eta eremu magnetiko-koen, eragina. 2005ean itzalarazi zuten, George Bush-ek ikerketarako diru laguntzak murriztuta. Irailaren 24an itzuli zen atmosferara. Baina lehenagotik zebilen txatar multzo alderrai: 2010eko urrian Nazioarteko Espazio Estazioak maniobra egin behar izan zuen UARSarekin talka ez egiteko. Ozeano Barean amildu zen azkenean.

zuenez, espazioko estazioko eskifaiak Soyuz kapsuletan egingo zuten baldin eta metalezko ale galdu hark instalazioa birrindu izan balu. 350 metrora pasa zitzaien, zorionez.

Kasu honetan iheserako maniobra abiarazi zuten NASAk kalkulatu zuelako pieza alderrai harekin topo egiteko aukerak 360 artetik batekoak zirela. Erreakzionatzeko halako larritasunik ez dagoenean, estazioa mugiarazten dute, talka saihesteko.

Kanikak ez, metrailakiak dira

1957an errusiarrek lehenbiziko Sputnika jaurti zutenetik, gizakiak Lurraren orbitan biraka milioi erdi puska baino gehiago laga ditu. Han goian sekulako bake isila gozatzen dela esan izan zaigun arren, paraje arriskutsua bihurtua da.

Edozerekin egin dezakezu tupust, izan satellite baten zatiki edo gizakiek utzitako simaur, aurreko satelliteek galdutako kamera, sentso-re, leiara... Ekainean ebakutzeko maniobra burutu behar izan zuen eskifaiari berari 2009ko martxoan oso hurbil pasatu zitzaion aspaldiko satellite baten motorra.

Igoeran koheteek utzitako atal eta erregaia ere kontrolik gabe dabilta. NASAk Jonathan McDowell-ek *New York Times* esan dienez “horiek ez dira orain koheteen atal: 500 metraila ale dira”.



NASA eta beste agentziek eten gabe jakinarazten dizkiete espazioan sateliteren bat duten estatu eta konpainia pribatuei alarma ohar berriak. Hona adibide bat, amerikarrak emana. Txinak 2007an egin zuenetik sateliteak misilez sunsitzeko frogatzen, operazio haren ondorioz sortutako txatarrek 677 ohar eragin dituzte. Beste datu bat: 2010etik gaurdaino orbita apalean dauden sateliteen jabeek 100 maniobra baino gehiago egin behar izan dituzte kolisioak ekiditeko.

Zabor multzo handi horrek hor segituko du dozenaka urtez, eta gutxitu ez ezik gehitu egingo da. Nola oztopatu emendatze hori?

1990tik Nazio Batuen Erakundeak, COPUOS Kanpoko aldeko

Espazioaren Erabilera Baketsurako Batzordearen barruan martxan dauka azpibatza berezi bat, IADC Espazio Zaborren Koordinaziorako Komitea. Urte luzeotan gomendioak eskaini dizkie kohete eta satelitegintzan ari diren estatu eta konpainiei, bai jaurtitzeko eta bai itzulerakoan sortzen dituzten hondakinak murrizteko. Gomendio guztiok 2007an NBEak berak formalki ontzat eman zituen.

Gezurra dirudien arren, hondakinak are gehiago ugaritu dira urte hartatik espazioan. Laura Gregok *All Things Nuclear* blogean erakutsi duen grafikoak garbi nabarmen-tzen du. Ez da kasualitatea.

2007ko otsailean, NBEak aipatu

IADCren gomendioak publikoki bere egin zituen hilabeteetan bertan, lau espaziontzi desegin zituzten orbitan, milaka txatar zati gehiago barreiatuz. Lauetatik hiruk askoz zabor gutxiago sortuko zuketena baldin eta beren jabeek alde aurretik erregaiz eta bestelakoak hustu balituzte... gomendioek eskatu bezala.

Laugarrenarena lotsagarriagoa izan zen: Txinak bere satelite bat suntsitu zuen lurretik jaurtitako kohete berezi baten bidez, sateliteen kontrako armak probatzeko. Justu horixe da IADCren gidaliburuak espresuki ez egiteko eskatzen duen gauzetako bat.

Txina ordura arte espazioko gerraren kontra mintzatu izan zen, baina 2007an erakutsi nahi izan zion munduari lehiaketa horretan ere aurreko muturrean nahi zuela. Ordainetan, metraila gehiago Lurraren orbitan.

“Pentsa dezakezue –idatzi zuen orduan Gregok– zer litzatekeen burnizko kanika batek, bala baten halako 10eko abiaduran doanak, jotzea makina bat espresuki arin eginga. Txinak test anti-satelitearekin horrelako 35.000 kanika barreiatu ditu, zentimetro inguruko piezak. Eta 1.500 gehiago 10 zentimetrotak edo handiagoak”.

Gure telefono mugikorrek, telebistak eta abar lanean edukitzeko orbitan dauden sateliteek zenbat puska utzi dituzten ez dakigu, ezta zaharkitutakoan lurreratzean zenbat gehiago sortuko dituzten. Baina hasi gara ohartzen gora jaurtitako guztia datorrela berriro behera. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Iñaki Mendiguren

Izan ere, Spain is different

E

uskal Herriko egoera politikoan funtsezko aldaketak gauzatzen ari diren garai honetan, itxaropena eta beldurra nahasten zaizkit barruan, beste askori bezalaxe. Ez dut ahazten frankismoaren bukaerako trantsizioa, nola-halakoa; ezin ukatu egoerak hobera egin zuela eta demokrazian irabazi egin zela, bidegabeta litzateke hori ez aitortzea. Baina dena ez zen ondo egin. Erregimen zaharrak, egoera berriari amore eman arren, eragin-ahalmen handia izaten jarraitu zuen, eta ilungune nabarmenak geratu ziren (ez txikienak Espainiako segurtasun indarren eta justizia sistemaren jarraipena). Oraindik zeharo burutu gabeko trantsizio haren ondorioak nozitzen ari gara.

Orain, berriro, beldur naiz ETA edo borroka armatuaren aroa ez ote den osasuntsu eta buru-argitasunez itxiko; bukatu bai, baina erdizka eta lardaska. Zergatik diodan hori? Ba, beste bake prozesu arrakastatsu batzuetan izan diren zirkunstantzia lagungarriak gurean ez direlako amestitzen; hemen larderia handi samarrez kitatu nahi dira azken 50 urteotako kontuak, eta garaileen edo ahaltsuenen bakea –benetako bakea izaten ez dena– ezartzeko tentazio handi samarrak sumatzen dira.

Antzeko zerbait ondorioztatzen da, baina askoz itzal eta eskarmentu handiagoz esanda, Brian Currinek joan den udan Miramar jauregian emandako hitzalditik: “Azken 20 urteotan hurbilenetik ezagutu ditudan bake prozesuak aztertutik, funtsezko 9 eskakizun edo baldintza identifikatu ditut: horiek betetzen badira, konponbide negoziatu arrakastatsua ahalbidetuko dute; zenbat eta gehiago falta horietatik, orduan eta aukera gutxiago bake iraunkorra lortzeko”.

Hona hemen 9 baldintza horiek (eta bakoitzak ikusiko du gurean zenbateraino betetzen diren edo ez):

1. Maila politikoan premia lehenetsi partekatua sentitu behar dute protagonistek



DANI BLANCO

konponbide baketsu eta negoziatua lortzeko. 2. Bi aldeetan buruzagi politikoez beren indar armatuen babesak izan behar dute: batzuek Estatuaren indar, armada eta polizia ofizialarena, eta besteek militante ez-ofizialena. 3. Protagonisten arteko konpromiso iraunkorra behar da konponbide baketsu eta negoziatuaren alde. 4. Lidergo handia abantaila da: *Mandela faktorea*. 5. Konponbide negoziatua ahalbidetuko duen ingurunea behar da, funtsean alde guztiei baldintza berdinak ziurtatuko dizkiena, eta horiek konfiantza eraikitzeke neurri gisa ezagutzen dira sarri. 6. Bake prozesu egituratu eta gardena behar da. 7. Hedabide arduratsuak behar dira, bakearen premia aitortu eta bake prozesua kausa

nazional gisa babestuko dutenak. 8. Hiritarrek, gizarte-erakunde zibilen bidez, bake ekintzetan inplikaturik egon behar dute ahalik eta maila gehienetan. 9. Nazioarteko laguntza konstruktibo eta inpartziala behar da.

Bederatzi faktore horiek gurean duten egoeraz Currinek berak zer pentsatzen duen jakin nahi duenak, Elkar argitaletxeak laster kaleratuko duen *Euskal Herria: Errealitatea eta Utopia* liburura jo dezake.

Hemen gatazka nola “konpondu” nahi den adierazten duen datu argigarri bat, hain zuzen ere, bitartekari edo laguntzaileei ematen zaien tratua da. Atzerriarrak eta gatazkatik kanpo dagoen jendea izanik, pentsatzekoa da inpartzialtasun eta objektibotasun nahikoa izango dutela; ba, ez, hemen horien esku-hartzea Estatuaren aldeko politikariek, hedabideek, iritzi-emaelek ezeroso eta gogaikarritzat jo izan dute kasurik onenetan, eta harrokeriaz gutxietsi eta iraindu beste askotan. Nire ustez, etorkizunari leiho berdeak –eta ez grisak– ireki nahi bazaizkio, oso estimatzekoa da bitartekari horien laguntza.

Beraz, *Welcome Mr. Currin and the ICG!* ■



Beldur naiz ETA edo borroka armatuaren

aroa ez ote den osasuntsu eta buru-argitasunez

itxiko; bukatu bai, baina erdizka eta lardaska.


Zergatik diodan hori? Ba, beste bake prozesu

arrakastatsu batzuetan izan diren zirkunstantzia

lagungarriak gurean ez direlako amestitzen

ASTE HONETAKO

zozketa



Sausta jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Belate pasalekua 7-8. behea
Tolosa, GIPUZKOA

Tel.: 943 655 453

1



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Inguru Abentura

Espeleologia (II. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

4



Artez euskara zerbitzua

2011-2012
5 ikasle agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

5

AZKEN IRABAZLEAK (2291. Argia)

ANDRA MARI jatetxea

• Eneritz Atutxa Villarreal (Lemoa)

JORGE OTEIZA Fundazio Museoa

• Matxintxu Aek Euskaltegia (Bilbo)
• Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)
• Lukas Etxeberria Sagastume (Gasteiz)

MUNDOKO IPUINAK

• Xalbador Unzueta Mitxelena (Zarautz)
• Bernardo Azpillaga Ariztimuño (Errezil)

TOLOSA INDOOR KARTING

• Jesus Mari Kerejeta Aldalur (Urretxu)
• Orkli S.Coop. (Ordizia)
• Yolanda Juaristi Arietaleanizbeaskoa (Bergara)

ARTIUM

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

• AED Elkartea (Arrasate)
• Gotzon Garitaonaindia Euskaltegia (Bermeo)
• Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



XABIER LETE GOGOAN

BILBO

Mikel Urdangarin
Anje Duhalde
Antton Valverde
Pier Paul Berzaitz
Amaia Zubiria
Jabier Muguruza
Arantxa Irazusta
Erramun Martikorena
Petti

Poeta: Kirmen Uribe
Bertsolariak: Unai Iturriaga
eta Igor Elortza
Aurkezlea: Noel Elorga

Urriaren 8an
Euskalduna Jauregian
20:00tan

Sarrerak salgai: 15€, 20€, 30€
Euskalduna Jauregian, www.euskalduna.net,
www.generaltickets.com/bbk

Babesle Nagusia



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Babesleak:



gozatuereakilet.com

URNIETA

Eñaut Elorrieta (KEN ZAZPI)
Pier Paul Berzaitz
Arantxa Irazusta
Antton Valverde
Petti

Bertsolaria: Amets Arzallus
Aurkezlea: Noel Elorga

Urriaren 11n
Urnietako kiroldegian
22:00etan

Sarrerak salgai: 15€
URNIETA: Lekaino kultur etxea, Kantoi taberna,
Eder liburutenda • **OIARTZUN:** Garmendi
Txokolategia, Elorsoro Kiroldegia, Garmendia
okindegia • **ORERETA:** Arkaitza taberna •
DONOSTIA: Hontza Liburutenda • **HERNANI:**
Aralar Taberna, Urrats Oinetako Denda • **ANDOAIN:**
Elizondo Taberna • **LASARTE-ORIA:** Jalgi Kafe
Antzokia • **TOLOSA:** Raku Taberna •
www.kutxa.net 943001200

Babesle Nagusia



Antolatzaileak



Aiurri

Urnietako Udala

argia

euskadi
irratia

anza
komunikazio grafikoa

ASA KULTUR
PROMOTORA

+34 619 421 153